



Etxekoak antzezlanaren gainean berba egin dugu Jon Gerediagaz eta Ander Lipusegaz. ▶16 - 17

Kontzertua emango du Sopelan, Jose Luis Canalegaz, Itxaso abeslariak: «Berdinen arteko komunikazioa bermatzen du jazz musikak». ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



38. zenbakia

2015eko
azaroaren 12tik
azaroaren 18ra arte



Lehenengo hirurak bota dituzte Iturribarrin

Baserriak bota eta hiru egunera, 120 lagun inguruk manifestazioa egin eta «borrokan» jarraituko dutela ohartarazi dute. ▶ 2

SAKONEAN GETXO-URIBE KOSTA

Euskara plazaratuz

«Opa dizueguna ospatuz» goiburupean, azaroaren 28an Algortako kaleak hartuko dituzte ALBE, Bizarra Lepoan, Egizu, Azebarri eta HIRUKA elkarteek. ▶22-23



HERRIZ HERRI BERANGO

Hil osoko jardunaldiak

Ekimen ugari antolatu ditu Udalak Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira.

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da. Horren harira, Berangoko Udalak hil osorako programa antolatu du, hainbat ekimenegaz, berbarako: autobus ibiltaria, antzezlanak, elkarretaratzea eta zine-foruma. ▶ 8



Berrikasi eta Berrikusi

Azken hamarkadetako euskararen eta euskalgintzaren bilakaera zein erronka berriak aztertu zituzten Getxon. ▶ 3

Erandioko Kalezulo gaztetxeak laugarren urtemuga ospatuko du zapatuan hasi eta hilaren 21era bitartean. ▶5

Mikologia Jardunaldiak hartuko ditu Gorlizek azaroaren 14an eta 15ean. Horretarako, ekimen ugari antolatu dituzte. ▶8

Getxoartek 31 artistaren 30 lan erakutsiko ditu, azaroaren 12tik 15era bitartean, Areetako Xake plazako karpan. ▶11

ArgiHizkiak lehiaketaren erakusketa Villamonteko kultur etxean ikusi ahal izango da, azaroaren 16tik abenduaren 13ra. ▶11



Hemengo eta Hango

GABI BASAÑEZ RUIZ
Abeltzaina

Elkartasuna Madriletik

Hamabost bat egun eman behar izan dugu Madril-en, «Askapenako bostak» taldea osatzen dogunok.

Behartuta, izan ere duela bost urte atxilotu eta kartzelaratu gintuzten, artean epaitu barik. Kalera irten ahal izateko 300.000 € ordaindu, estatu espainoletik irteteko debekua onartu eta egunero epaitegira sinatzera joan. Bost urte egoera horretan eman eta epaiketa, edo dena delakoa, egin izan digute. Salaketa ETArekiko kolaborazioa izan da. Hamabost egunetan, eta bost urteko «lan»a eta gero, ezin izan dute aportatu argazki, paper, entzuketara edo testimonioren bat frogatzeko lotura hori. Ezer ere ez. Halere, «perito»-poliziek ez dute inolako arazorik honelakoak botatzeko: «zuek antolatzen zenuten elkartasun brigadek negoziazio politikoa defendatzen zuten joaten ziren atzerriko herrietan, ETak defendatzen duen gauza bera; beraz, horra kolaborazio argia». Tumatxa! Epai-leak berak galdera zuzen bakararra egin zigun, ia ETA kondenatzen genuen jakiteko. Eta zertarako nahi zuen jakin? Ba, gure harridurarako, geu eta ETaren arteko harremana zein zen jakiteko. Ez pentsa esajeratzen nabilenik, zehatz zehatza da. Aurretik Audientzia Nazionalaz tabernetan entzun izan ditugun zurrumurru txarrenak lehen pertsonan bizi behar izan ditugu. Sinestezina! Ez du larregi merezi horkoak kontatzea, gure kasuan bezala, defentsa onena izanda ere eta gure errugabetasuna argi eta garbi erakutsi eta gero, inpotentziari eta haserreari hegoak emateko ez bada. Ito daitezela euren harrokeria faxistan. Merezi duena da, Euskal Herritik etorri zineten lagun eta senideen babesa. Eta ororen gaineratik Madrileko Euskal Herriaren Lagunen *apoioa*, Vallecaseko jende langilearen bultzada, La Atalallako gazte gaztelar independentisten eskola okupatuko besarkada eta muxuak. Ez dugu inoiz ahaztuko, munstroaren etxe erditik duintasunez manifestatzeko eman diguzuen aukera. Itzelak zarete, gora zuek. Gora elkartasun internazionalista. ◀

Getxo

Azaroaren 9an, Hezetasuna auzoko hiru baserri bota zituzten. Horren aurrean, 120 auzokide manifestatu ziren hiru egun geroago.

Algortako Hezetasuna auzoko hiru baserri eraitsi eta hiru egunera, zapatuan, hilaren 12an, 120 pertsona inguru batu ziren Iturribarriko urbanizazio-prozesuaren kontrako euren iritzia azaltzeko. Goizeko 11:30ean abiatu zuten manifestazioa Areneazpi kaletik, eta ondoren, Algortako kaleak ibili zituzten euren desadostasuna azaleratzeko. «Etxeak bota dituzte, baina borrokan jarraituko dugu», iragarri zuten deitzaileek. Algortako inguru horretan, 352 etxebizitza libre eta babes ofizialeko hainbat eraikiko dituzte. Ezarritako eraikitze-tipologiaren arabera, BOEn kopurua 147 eta 273 bitartekoa izango da. Hala, guztira, 500 etxebizitza berri baino gehiago eraiki gura dituzte Iturribarrin.

3.000 etxebizitza huts, Getxon Hezetasuna Auzoko Bizilagunon Taldeko kideek gogoratu dutenez, Getxon 3.000 etxebizitza huts baino gehiago dago. «Beharrezkoak direla diote Udaletik, baina gure ustez, nahikoa dugu 3.000 etxebizitza huts egonda; berdegune gehiago gura ditugu, eta porlan gutxiago», gaineratu dute. Era berean,



Baserriak bota arren, «borrokan» jarraituko dutela iragarri dute auzokideek.

urbanizazio-prozesua aurrera eroateko lana duen BYCAM enpresa ere jomugan ipini dute auzokideek: «oso ondo dakigu BYCAM EAJgaz lotuta dagoen enpresa dela. Gaur egun, jeltzaleek gobernatzen dituzten udalen %85ek baino gehiagok laguntza eskaintzen diote enpresa horri, esleipenak lortzeko». Getxoko Udalari «dirua irabaztea eta poltsikoak betetzea» interesatzen zaiola salatu dute, era berean; «Udalari ezer gutxi interesatzen zaio auzokideek zer pentsatzen duten», amaitu dute.

«Irregularitasunak», auzitegira GUK hautesle-elkarteak argitara eman duenez, Iturribarriko prozesuak «irregularitasunak» izan ditzake; hori de-

la-eta, auzitegietara jotzeko aukera ikertzen dabilta. Izan ere, azaltzen dutenez, Bozeramaileen Batzordean sei galdera egin zituzten, Kontzertazio Batzordearen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren harira. Salatu dutenez, Gobernu Taldeak erantzun ei zien prozesuaren espedientera jotzeko; «Udalak ez ditu zalantzak argitzen», ondorioztatu dute. Horren ondoren, «Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ikusitako irregularitasunak are garrantzitsuagoak dira», euren arabera.

Euren ustez, «arduragabekeria» da Gobela ibaiaren drainatze-arroan etxebizitzak eraikitzea, inpaktu txostenik egin gabe. Hori dela eta, auzitegietara jotzeko bidea ikertzen dabil GUK hautesle-elkartea. ◀

Disectemarrek kudeatuko du Aquariuma, 272.000 eurogaz

Aquariumaren kudeaketa esleitu dio Getxoko Udalak Disectemar enpresari. Horretarako, urtean 272.000 euro bideratuko dituzte. Kontratuaren iraupena lau urtekoa izango da, aurtengo azarotik hasita. Jakinarazi dutenez, kontratu horrek urtebeteko luzapen bi izan ditzake. Disectemar enpresaren kudeaketa azaroan bertan hasi da. Udalak emandako azken datuen arabera, Getxo Aquariumak 8.255 bisita jaso zituen 2015eko ekainetik irailera bitartean. Urtean, instalazio horiek 18.000 lagun jasotzen ditu, batez bestean.

Getxoko PP ez ei dago ados, euren ustez, bisitari-kopuru hori ez litzateke nahikoa Udalak egindako inbertsio ho-



retarako; Eduardo Andrade PPko zinegotziak honakoa salatu zuen (gaztelaniaz) Twitter bidez: «Berrirori kontratatu da enpresa bat urtero 272.000 euroren truke Getxoko Aquariuma kudeatzeko. Berdin du baten bat sartzen den ala ez, guri dagokigu ordaintzea». ◀

Gizarte Segurantzari 95.372 euro ordaindu dizkio Udalak

Udalak Gizarte Segurantzari maia-tzean 95.372,53 euroko erretegia ordaindu ziola jakinarazi du EH Bil-duk. Ordaintzeko aginduan, honakoa aipatzen da: «kotizazioen likidazioaren ordainagiria borondatezko aldian ordaintzeko epea igaro dela ikusita, zorra likidatzeko dokumentu bat sortu da kotizazio-kode bakoitzeko». Zehaztu dutenez, guztira, kode desberdineko 7 kontzepturengatik egin da ordainketa. Gaiaren berri izatean, koalizio abertzaleak Langileen Batzordeari itaundu dio ea zergatik ez diren ordainketak garaiz egin, eta zer egin zen txarto diru hori ordaindu behar izateko; kodetutako kontzeptuak ere zehazteko eskatu dute. Oraindino ez da egon erantzunik. ◀

Getxo

Nagusien Elkarterako gunea berreskuratzea eskatu du PPK

Algortako Urgull kalean dagoen lokala, berriro ere, Nagusien Elkarteraren egoitza izatea eskatu du Iñaki Gamero Getxoko PPreko bozeramaileak. Horretarako, BBKgaz duen egoera aztertzea eta hori mantentzeko egin behar dituzten lanak egitea eskatu dio Udalarari. Gogoratu duenez, lokala nagusien etxetzat erabili ohi da; halere, «2012an Udalak Nagusien Elkarterari eskatu zion hortik behin-behinean alde egiteko, irigarritasunerako obra batzuk egiteko». Gaur egun, elkarte horrek San Martin de Tours elizako behealdean egiten ditu bere jarduerak. ◀

Omenaldian ez du parte hartu EH Bilduk, EAJren jarrera salatuta

EH bilduk gogor salatu du EAJren jarrera «arduragabe eta alderdikoia» Memoriaren Egunean. Koalizio aber-tzaleak azaroaren 10erako «akordio berri bat lortzeko beharra» helarazi zion Udalarari, «gaur egungo koiuntura politikoari egokitutakoa, hain zuzen ere». Biktima guztien presentzia jasotzea aldarrikatu dute, baina saiakera guztiek «isiltasuna» jaso dutela salatu dute. Horren aurrean, azaroaren 10erako antolatutako omenaldian ez parte hartzea erabaki zuen EH Bilduk. Era berean, «biktima guztien memoria presente egoteko lanean» jarraituko dutela azaldu dute, «egungo errealtate politiko eta sozialari erantzun gabe dion akordioa lortu arte». ◀

Euskalgintzaren bideak eta erronkak eztabaidatu zituzten

Pasa den astean, hitzordu berezia hartu zuen Algortako Azebarri kultur elkarteraren egoitzak. Bizarra Lepoan euskara elkarteak eta Euskaltzaleon Topaguneak antolatuta, Kike Amonarrirek gidatu zuen Berrikasi eta Berrikusi goiburupeko eztabaida: azken hamarkadetan euskarak eta euskalgintzak izan dituzten bilakaerak aztertu eta datozen urteotarako lan-ildoak hausnartu zuten. Berbal dia oso-rik bideoan jaso du HIRUKAK. ◀



Berbal diaren bideoa Youtubeko HIRUKAren kanalean duzue. Eskerrik asko Plentzia TBko lagunei, emandako laguntzagatik.

Baliteke ostalaritza-gunea zabaltzea Galeako faroan

Galean dagoen itsasargiari ostalaritzarako zer erabilera eman aztertzen dabil Bilboko Portuko Agintaritzak. Jakinarazi dutenez, espainiar Estatuko Portuek begi onez ikusten dute itsasargiak aisialdirako gune izatea. Hori horrela, baliteke Getxoko eraikin hori ostalaritza-gune bihurtzea. Era berean, Matxitxakoko (Bermeo) itsasargia hotel bihurtzea iker-tzen ari dira.

Proiektuak aurrera egingo balu, itsasargian egingo litzatekeen ostalaritza-gunea kudeatzeko lehiaketa publikoa deituko lukete 2016ko lehengo hi-



ruhilekoan. Aukera hori onartuta ere, itsasargiak bere funtsezko egitekoa ere beteko luke: seinaleztapena. Espainiako Sustapen Ministerioarena da beste erabilera bat emateko ideia hori. ◀

Herritarren osasuna hobetzeko asmoz: GetxONbizi proiektua

Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, osasuna erabateko ongizate-egoera da: fisikoa, soziala eta psikologikoa; ez bakarrik gaitz edo gaixotasun bako egoera. Hori horrela, udalerrian osasuna hobetzeko asmoz, GetxONbizi proiektua ipini dute martxan. Daborduko, hainbat jarduerak egin dituzte, eta hurrengoak tailer bat izango da: estresa maneiatzeko eta erlaxatzeko teknikak, komunikazio eraginkorra eta gatazkak konpontzeko bideak, zein lehen sorospenetarako irakatsiko dituzte. ◀

info+: www.getxo.eus

MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

EROSKI
online
zurekin

lurraldearen

%100

-era iristen gara

EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

Getxo

Begoñako dokumentala

Begoñako galeriak «balioan jartzeko prozesua» jasotzen duen dokumentala egingo dute.

Getxoko Gobernu Taldeak (EAJ eta PSE-EE) adostu du Gobernu Batzordean 58.806 euro bideratzea Begoñako galeriak balioesteko prozesuaren inguruko dokumentala egiteko. Joan den maiatzaren 19an eman zuten horretarako baimena; hala, proiektua prozesu irekiaren bitartez esleitzeko espedientea martxan ipini zuten. Guztira, lau enpresa aurkeztu ziren horretarako: Marmokafilms, Esrec Produzioak, K-2000 S.A.U. eta Prosumerlab. Azkenean Prosumerlab aukeratu dute, «Udalaren interesentzat, eskaintza ekonomiko onuragarriena» eskaintzen zuelako. Dokumental hori



Begoñako galeriak bisitatzeko aukera egon da.

egiteko kontratua hiru urtekoa izango da, luzatzeko aukera barik.

Begoñako galeriak

Galeria horiek Euskal Herriko XIX. mendeko historia azaltzen laguntzen dute. EHUKo diziplinarteko aditu-tal-

dea lanean dabil bertan, udal teknika-riakaz batera, galeriak berreskuratzeko. Birmoldatze-prozesu horri lotuta, herritarren partaidetzarako prozesua zabaldu zuten; lehenengo pausoa, 73 proposamen jaso ziren, oso gai ezberdinen gainekoak. ◀

Mintzakuadrillak berriro hasi dira berbetan, Getxon

Getxoko Mintzakuadrillak berriro hasi dira berbetan, Getxon. Azteen arteko harremanak euskalduntzen jarraitzeko asmoz, Mintzakuadrillak ekimenaren bigarren urteari hasiera eman diot. Egitasmo hori Egizu Getxo Euskaldun! elkarteak antolatu du, Getxoko Udalaren laguntzagaz. «Akachak akats lortuko dugu» goiburuko proiektuan parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute. Horrela, parte-hartzaileek konpromisoa hartuko dute astean behin ordubetez elkartu eta euskaraz berba egiteko. Parte hartzeko modu bi daude: betiko kuadrillarekin ala banaka izena emanda.

Iaz ipini zuten martxan lehenengo aldiz ekimen hori, eta 80 gazte inguruk parte hartu zuen. Aurtengo edizioan parte hartzeko, hainbat modutan eman daiteke izena (ikusi behean). ◀

izen-ematea: Getxoko Mintzakuadrillak facebooka
619 935 541 (WhatsApp bidez)
getxo@mintzakuadrillak.eus



XIV GETXOKO KOMIKI AZOKA 2015 SALÓN DEL CÓMIC DE GETXO

AZAROA 20 - 21 - 22 NOVIEMBRE
AREETAKO GELTOKIA PLAZA - PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
GETXO BIZKAIA

ORDUTEGIA 11-14:30 - 17-21:00 HORARIO
IGANDEA 11-14:30 - 17-20:00 DOMINGO
SARRERA 1,5 € ENTRADA

Erandio

Egitaraua

Azaroak 13, barikua

20:30 Txupin-jaurtiketa eta txorizo-ezusteoa, Jado kalean.

Ondoren Poteoa, Riojano tabernatik abiatuta, Polekele elektro-txarangagaz.

Azaroak 14, zapatua

10:30 II. Eskalada Txapelketa herrikoia, Kalezulo gaztetxean. Amaieran, bazkaria.

18:30 Garagardo artisauen topaketa: Drunken bros, Marbi, Mitika eta Boga. Dastaketa, pintxoak eta tailerrak.

20:30 Txalaparta musikatua.

Ondoren Bertso-brewery-saioa: Arrate Illaro, Igor Elortza eta Amets Arzallus, musika irlandarra, pintxoak eta afaria.

Azaroak 15, domeka

19:00 Kafetegiaren inaugurazioa eta *Temps de Canvi(e)s* dokumentalaren proiektzioa eta berbaldia, gaztetxean.

Azaroak 18, eguaztena

18:30 Serigrafia tailerra, gaztetxean.

20:00 Zumba-saioa.

Azaroak 21, zapatua

11:30 Umeentzako tailer eta antzezlanak, Trantxi, Trontxi eta Truntxi pailazoakaz, Irailaren 23a plazan, udaletxearen aurrean.

13:00 Polka erraldoia, Koliseoan, eta triki-poteoa, Kalezulo gaztetxeraino.

15:00 Gazte-bazkaria.

Ostean *Probatu ez duenak ez daki zer den hau* Gasteizko gaztetxearen gaineko dokumentalaren emanaldia.

18:00 Lorezaintza.

19:00 Beti-Lagun tabernaren agurra: Amagoren emanaldia, eta ezustekoak.

21:00 Kontzertua: Bastards On Parade (Galizia), Garilak 26, ekitaldia eta DJ Asuran.



Hainbat eta hainbat gaztek okupatu zuten Kalezulo gaztetxea 2011ko urriaren 23an.

Kalezulo gaztetxeak urtemuga ospatuko du

Barikutik hilaren 21era, Kalezulo gaztetxearen 4 urteko ibilaldia ospatuko dute Erandioko Gazte Asanbladak eta Roko taldeak; gazteen ilusioari ez diote mugarik ikusten.

Orain dela lau urte, ia 200 gaztek parte hartu zuten «Erandion, gaztetxea bai!» kanpainan, «gazteontzako leku fisiko baten beharra» zegoela iritzita. 2011ko urriaren 23an, hainbat neska-mutilek okupatu zuten utzita zegoen Faro enpresa, Jose

Luis Goioaga etorbideko 11. zenbakian. Geroztik, «hamaika ekimen egin dira», Erandioko Gazte Asanbladak akordura ekarri duenez: «afari akustikoak, jaialdiak, tailerrak, auzolanak, bilerak... eta beste hamaika geratzen dira sortzeke». Lokala hutsarazteko arriskuan dago. ◀

Bosgarren edukiontzira batzeko informazio-saioak

Oraindino 5. edukiontzian izena eman ez duten auzokideek, baina hondar organikoak sailkatzeko asmoa dutenek, aukeran dute hainbat informazio-saio (elebitan). Horietan, 5. edukiontzia gainera argibideak emango dizkiete, eta programan sartzeko kida emango ere bai. Saioretan parte hartzeko, aurretik izena eman beha-

rra dago. Mintegiak Altzagako azoka zaharrean hasiko dira, azaroaren 17an, honako orduetan: 17:00, 18:30 eta 20:00etan. Hurrengo egunean, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean izango dira, ordutegi berean. Hilaren 19an, Erandiogoikoko zentro soziokulturean izango dira saioak. ◀

izen-ematea: 900 866 963

Gabonetako postalen lehiaketaren epea laster amaituko da

Barikua izango da azkenengo eguna Gabon Postal Lehiaketan parte hartzeko. Ordura arte, folio bat edo kartulina bat hartu, Gabon-postala marraztu eta Altzagako edo Astrabuduko liburutegira eroan ahal izango dute 3 eta 11 urte bitarteko umeek. Txikienek saria izango dute, eta nagusiagoek zozketa batean parte hartuko dute. ◀



Potxingoak kaleetan

ANA TERESA ESCUDERO BIZKARGUENAGA
Kazetaria

Maiderrekin esan eban... «Eta zu, ama?»

Lehengusin-lehengusuen arteko bazkari batean batu ginen. Beti antolatu gura izaten dogun horreetariko bat zan. Zorionez, oraingo honetan batu egin ginen. Hainbat urte alkartu barik (mahai baten inguruan dinot; hiletetan hainbatetan, beti arineketan...), beraz, batzuen eta besteen seme-alabak amamek trukaturako argazkietan ezagutzen genduzan juxtu-juxtu. Bazkalostean etxaurrean berbetan gengoza, lehengusin batek aurreko eguneko planaz galdetu eutson alabari, lagunekin egingako pijama-jaiaz galdetu eutson. Erantzun ostean Maiderrekin (holan deitzen zan nerabea) esan eban: «eta zu, ama? zelan zagoz? zelan pasa dozu zuk?...» Uste dot nagusi gehienak berbetan gengoza. Bat-batean, zist!! tximista batek zeharkatu eban txokoa. Ixildu ginan. Alabaren galderak harritu gintuan. «Eta zu, ama?»

Galdera sinplea; erantzuna, euskaldunok hainbeste erabiltzen dogun «sin más». Ez gagoz ohituta umei zeozter galdetu eta eurek ere gutaz arduratzea. Izan be ia-ia ez gagoz ohituta nagusi bati, edozeini zeozter galdetu... eta bueltan, «zu zelan?» edo antzekoak entzuten.

Momentuan ez neban ezer esan, baina antza ez gintuan nagusiak hunkitu bakarrik. Ordu-tik, nik esan barik, gure etxeko nagusiak be (Maidere baino gaztetxuagoa) egiten dau bueltako galdera, denborarekin bigarrenak be hartu dau oihura eta txikia badoa bide beretik. Ez da ezer berezi, gainera, ziurrenik erenegatzen egongo gara alkarrekin gagozanean. Baina, lanetik deitu edo etxera sartzetakoan galdetzen dautsuenean... «eta zu, ama, zelan?» Ni pozarren... Egun hartan, bazkari hartan, Maiderrekin bota ebalako... «eta zu, ama?». Eskerrik asko, Maidere!! Eta bide batez, aspaldi ez garen ez alkartu: zu zelan, Maidere? ◀

txakoli motaTx.
txakolina

leku Urbe enpresa 34 (Alfaroa Parke) Gasteiz-Erandio
Tf. 94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

SOS
Nº ES/18/014

SOS
Nº ES/18/015

Indeiza

- Soropila Ezartzea**
Lutxoria prestatzeko lanak, disainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, lursadio organitze lanak eta erate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea**
Moztea, ureztatzea, organitzea, eguraketa, aratzea eta desinfectatzea, berrikuntzea, soropil goiztiak eta belar goiztiak tratatzea.
- Inausketak**
Hatzeko, mantentzeko, berriketako, zuhaitza apaindariak inausketak, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea**

Axpe ibaiertza 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO) Mug. 629 41 18 38 - Tf. 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
luberi@euskalnet.net - www.luberi.biz

Leioa

Lamiako eraldatzen

Lamiako auzoa eraldatzeko prozesuak aurrera jarraitzen du; orain dela aste bi, Guardia Zibilaren antzinako kuartela eraitsi zuten hondeamakinek. Eraikina oso txarto zegoen, eta, ondorioz, behera botatzea erabaki zuen Udalak; hasiera batean eraispen-lanen kostea bere gain hartu du erakundeak. Hango orubearen erdia jabego publikokoa da, eta beste erdia bertoko familia baten oinordekoena. Beraz, eraispen-lanen kostearen erdia Udalarik ordaindu beharko diote; etxea behera botatzeak 66.000 euroko kostea ekarri du, eta Iberdrolak egin behar izandako alaketak beste 30.000 euro inguruko gastua. Iban Rodriguez Etxebarría Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, Orubean aurreikusita dago salmenta libreko etxeak altxatzea eta horiek bat egitea daborduko Lamiakon abian diren beste etxebizitza-promozioa-



Guardia Zibilaren antzinako kuartela botatzeko erabakia hartu zuen Udalak. © LEIOAKO UDALA

kaz. Berbarako, Kutxabanken jabego-ko Neinor enpresak 218 pisu eraikiko ditu, fase bitan.

Urteak dira, Lamiako auzoa zaharberritzeko plangintza berezia abian dagoenetik; ordutik, baldintza duinak

ez zeuzkaten etxeak bota, etxebizitzetarako eraikinak altxatu, eta plaza berriak egin dituzte. Gutxi bada ere, egitekorik badago oraindino. Gelditzen den zati horretan, salmenta libreko etxebizitzak eraikiko dituzte. ◀

Mutilaren gurasoek deklaratu dute, Gaztelueta auzian

Gaztelueta ikastetxeko ikasle ohi batek jarritako «sexu-abusuaren» salaketa aurrera doa Getxoko Justizia Jauregian. Hala, epaileak lekukotza hartu zien eguaztenean, azaroak 11, ikasle ohiaren gurasoei, defentsaren peritu bati, mutilari eskola eman zioten irakasle biri eta Imanol Goyarrola Gaztelueta egungo zuzendariari (ustezko gertaeren unean, zuzendariordea eta gaztearen irakaslea zen).

Lekukotzak uztailaren 29an jaso zituzten; salaketa aurkeztu duen ikasle ohi eta irakaslea zen ustezko erasotzailea egon ziren magistratuaren aurrean. Urriaren 30ean, berriz, epaileak lekukotza hartu zien gaztea artatu duten lau medikuri, ustezko delituak jazo ziren urteetan (2008 eta 2011 artean) Gaztelueta zuzendaria izan zenari eta ikaslearen *bullying* auzia ikertu zuen Hezkuntza Saileko inspektoreari. ◀

Diru kopuru bat itzultzeko eskatu dio Aldundiak Udalarik

Bizkaiko Foru Aldundiak 2015erako aurreikusitako diru-bilketak ez dira bete; horren ondorioz, 48 milioi euro itzuli beharko dizkiote udalek foru-erakundeari. «Leioaren kasuan, herriarrok 1.117.222 euro itzuli beharko dizkiogu Aldundiari», EH Bilduk salatu duenez. Gobernu taldearen arabera, oster, «801.307 euro itzuli beharko zaizkio Aldundiari; ez 1.171.222 euro, esan den bezala». Agintari leioaztarrek azaldu dutenez, «Udalkutxak 2016an Leioako Udalarik egingo dion diru-sarrerak 300.000 eurotik gorako igoera suposatzen du». Azaldu dutenez, herriarrok «beharrizanak guztiz estalita egongo dira». ◀

Abere-proben gaineko eztabaida eskatu du PSE-EEk

Abere-proben kontra, ATEA elkar-teak egindako ekimenari «errespetu osoa» adierazi dio Juan Carlos Martinez Llamazares Leioako PSE-EEko buruak. Bertoko sozialisten ustez, «beharrezkoa» da jaietan egiten diren abere-probetan animaliek tratatu txarrak jasotzen dituzten ala ez eztabaidatzea; tratatu txarren kontra azaldu da PSE-EE. Martinezek adierazi duenez, «mahai gainean daukagu gaia Bizkaiko sozialistok. Gogoratu du «Portugaleteko Udalak abereakaz egiten diren ekitaldiak kendu dituela jaien egitarauetatik». Animalia-zaleek 10.000 sinadura helarazi zizkieten Leioako alkate Mari Carmen Urbietari. ◀



Mari Carmen Urbietak eman zion saria Sarriari. © LEIOAKO UDALA

Leioa Eguneko saria, Sarriarentzat

Jose Ignacio Sarria Musika Eskolako presidenteak jaso zuen Leioako Eguneko saria, urriaren 29an, Artatza jauregian. Udalerria Erandiotik 1526ko urriaren 31n desanexionatu zen arren, egun bi lehenago ospatu ohi dute gertaera horren urteurrena.

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez: Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Lixarreriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

Sopela



Itxaso abeslariak (irudian) eta Jose Luis Canalesek jazza hurbilduko dute Kurtziora barikuan.

Alberto Urretxoren azken lana, Kurtzion

Azaroaren 6an abiatu zen Musikaldia Sopelako udagoienerako musika-zikloa, baina aste-akabu honetan ere, hiru kontzertu egingo dira, non eta kultur etxean.

Musikaldia udazkeneko musika-zikloa aurrera doa Kurtzio kultur etxean. Azaroaren 6an hasi zen, eta oraindino, garaiz zabilta emanaldi batzuk ikusteko. Musikaldian, dena, bost ekitaldi prestatu dituzte; horietatik hiru, zikloko azkenak, aste-akabu honetan egingo dira. Bihar, barikua, hilaren 13an, Itxaso & José Luis Canales bikotearen jazz-emanaldia izango da; sopeloztartzutako goi-mailako kantaria da Itxaso. Zapatuan, Alberto Urretxok

lan berria estreinatuko du: *Soinuaren Bidaia* diskoa aurkeztu, eta *Serenata de Polentzi* film laburra proiektatuko du. Azkenik, azaroaren 15ean, domekan, umeen txanda izango da: eurentzako musika tailerra eta kontzertua prestatu ditu Euskadi Brass taldeak, proposamen benetan originala. Barikuko zein zapatuko kontzertuak 20:00etan hasiko dira. Umeei begirako ekitaldia, ostera, 10:00etan izango da; tailerra egingo da lehenengo, eta jarraian, kontzertua. Sarrerak, 3 euroan salgai daude. ◀

Berbaldiak prestatu dituzte Umeen Egun Unibertsalaren harira

Uribe Kostako Mankomunitateak Umeen Nazioarteko Egunean parte hartzera gonbidatu ditu sopeloztarrak. Horretarako, hitzaldi bi antolatu ditu azaroaren 18rako eta 19rako, hain zuzen ere, 'Familia, hazteko gunea' ekimenaren barruan. Ediren osasun-kooperatibako profesional taldekoek berbaldi bi eskainiko dituzte Kurtzio kultur etxean, 17:30ean. Azaroaren 18an, eguaztenean, 'Gaurko familiak: zelakoa da zurea?' gaia landuko du Enrique Saracho psikiatrak. Biharamunean, berriz, 'Seme-alaba hauek ez didate kasurik egiten: zelan egin dezaket?' gaiaren inguruan jardungo du Arantza Gomez psikologoak. ◀

TTIP delakoa ezartzearen aurka agertu da Udalbatza

Iraileko Osoko Bilkuran, Sopelako Udala TTIP Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoa (TTIP) aplikatzearen aurka agertu zen. Zehazki, gaiaren harira proposamen bat onartu zuen Udalak. Horren aurretik, Sopelako EAJk eta PSE-EEK osoko zuzenketa aurkeztu zioten proposamenari, baina ez zen onartu; izan ere, EHBildu, DB-TU eta Sopela Orain udal taldeek haren kontra bozkatu zuten. Hiru talde horien botoakaz proposamena onartu zuen Udalbatzak. Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko hitzarmena izango da TTIP, aurrera eginez gero. Aurten negoziatzia amaitu, eta 2016an sinatu eta abiatu gura dute. ◀



Sopela bor-bor, eta txapela Larraurira! Imanol Ormaetxe irabazi zuen iragan zapatuan *Pepetxin*-en omenezko putxera-lehiaketa; Sopelako indabarik onenak Haizeder kuadrillakoek prestatu zituzten. Denera 158 putxera aurkeztu zituzten, 108 Sopelakoak. © SOPELAKO UDALA



Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



aiak
GOSARIAK PINTXOAK
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!
Bentatu 2. Tlf. 94 676 03 28 SOPELA

Irunbat
galp
C/ Lolola Ander Deuna, 74
Teléfono: 946 764 625
Fax: 946 762 582
Web: www.irunbat.net
MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

LURREN
GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko atzean)

Berango



Hilaren 25ean da Emakumeenganako Indarkeriaren Aurrakako Nazioarteko Eguna.

Berdintasunaren aldeko jardunaldiak, hil osoan

Ekimen ugari antolatu dituzte Emakumeenganako Indarkeriaren Aurrakako Nazioarteko Egunerako.

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurrakako Nazioarteko Eguna izango da. Horren harira, Udalak hilabete osorako programa antolatu du, hainbat ekimenegaz. Hala, azaroaren 12an, Emakunderen autobus ibiltariak Berango-Merana ikastetxe bisitatuko du, ikasleek Ber-

dintasunerako Gunea zuzenean eza-gutu dezaten, 09:00etatik 19:00etara. Handik egun bira, hilaren 14an, Impromptu taldeak Debussyren omenezko kontzertu didaktikoa eskainiko du Berango Antzokian, 19:00etan; sarrera, doan. Azaroaren 21ean, zapatuan, Uribe Kostako Berdintasun Jardunaldiak egingo dituzte Urdulizko emakumeen elkartearen egoitzan. Jarduerak goizeko 10:00etan hasiko dira. Egundorretan bertan, emakumez osatutako antzerki talde baten istorioa kontatzen duen helduentzako antzerkia izango da Berango Antzokian. Hitzordua

19:00etan izango da; sarrera, doan. Azaroaren 25ean, eguaztena, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurrakako Egunean, elkarretaratzea egingo dute 11:30ean, metro-geltokiaren ondoan. Hilaren 26an, eguna, zine-foruma egongo da Berangoeta kultur etxean, 18:30ean. Azaroaren 28an, berriz, *Ai Ama* antzezlanak ikusi ahalko da, Berango Antzokian, 19:00etan. Hurrengo egunean, martxa zikloturista egingo dute 10:30ean, Nagusien Etxetik abiatuta. Hilaren 29an, berdintasunaren inguruko ipuin-kontaketa bat egongo da, Berango Antzokian, 18:00etan. ◀

Hainbat ikastaro martxan ipiniko du, azaroan, KZgunea

KZgunea sareak teknologia berrien gaineko doako zerbitzuen eta ikastaroen katalogo zabala eskainiko du, azaroan, Berangon. Hala, oinarriko Internet; ofimatika-software librea; sare sozialak 2.0; irudia eta soinua; eta Google Apps landuko dituzte tailerretan. Horien ordutegia ikastaroaren arabera izango dira. Hala ere, jakinarazi dutenez, guztiak 16:00etatik 20:00etara arteko tartean izango dira, Abarotxu bidea, 17 zenbakian dagoen lekalean. ◀

info+: www.kzgunea.blog.euskadi.net
twitter eta facebook: [kzguneatic](https://twitter.com/kzguneatic)
tutor.berango@kzgunea.net

Sahararen aldeko azoka egingo dute azaroaren 15ean

Orain dela gutxi uholdeak egon dira Tindoufeko (Aljeria) sahararrar errefuxiatuen eremuetan. Hori dela-eta, Berangoko Udalak azoka solidarioa egingo du azaroaren 15ean, domeka. Horretan postutxoren bat ipini ahal izateko, aldeztu aurretik izena eman beharra egon zen, eta saltzaileek 10 euro ordaindu behar izan dituzte mahaia alokatzeko. Bigarren eskuko produktuak salduko dituzte bertan; iragarri dutenez, eguraldi ona eginez gero, azoka Nagusien Etxearen ondoko plazan egingo dute; euria eginez gero, berriz, frontoian egingo dute. Ordutegia 11:00etatik 15:00etara izango da. ◀

info+: www.berango.net

Gorliz

Janaria batzen hasi dira, Sahararen aldeko karabanarako

Aurrekoetan legez, Gorlizko Udalak Auzokideen eskuzabaltasuna jasotzeko plana ipini du martxan; oraingoan, Sahararen alde.

Hala, Piztu Itxaropena deritzon Sahararen aldeko XII. Euskal Karabana abiatu dute hainbat elkartek; horrenbestez, gura duenak elikagaiak eta eroan ahal izango dituzte Gorlizko kultur etxera, turismo bulegoetara eta udaletxera, urtarilaren 15era arte. Ondoko gai hauek jaso nahi dituzte: azukrea, atuna eta sardinak oliotan, arroza, pasta, lekale lehorrak eta produktu higienikoak (konpresak). ◀

info+: www.gorliz.eu

Perretxikoak eta onddoak gora eta behera, hilaren 14tik 15era

Udagoienagaz batera, ohikoa da perretxikoak eta onddoak ikustea «nongura». Gure basoek sasoi honetan ematen dituzten fruitu preziazuetarikoak dira, eta jaso-zale ugari dituzte gurean. Hori horrela, egunotan ohikoak dira herrietako jardunaldi mikologikoak. Gorlizen ere tradizio handikoak dira horrelako ekimenak; hala, hilaren 14tik 15era bitarteko aste-akabuan udalerriko XIV. Jardunaldi Mikologikoak egingo dituzte.

Horretarako, hainbat ekintza antolatu dituzte egun bi horietarako. Azaroaren 14an, zapatuan, artisautza-azoka egingo dute San Pedro plazan,

11:00etatik 14:30era arte. Era berean, Murgiara irteera egingo dute, perretxiko bila. Halaber, Gorlizko tabernen III. Pintxo Lehiaketa egingo dute, zelan ez, perretxikoakaz edo onddoakaz egindakoak. Gainera, aste osoan, argazki-lehiaketa egongo da, horretarako gaia: perretxikoak. Domekan, hilaren 15ean, perretxiko-erakusketa egingo dute, San Pedro plazan. Ondoren, Zero Zabor erakusketa zabaldu, eta umeen perretxiko-lehiaketa abiatuko dute. Jose Angel Azategik ere «artisau-perretxikoak» erakutsiko ditu, eta ostean, argazki eta pintxo lehiaketan sariak banatuko dituzte. ◀

Egitaraua

Azaroak 14, zapatua

Aste osoan, argazki-lehiaketa Lanak aurkezteko, bidali argazkiak helbide honetara: turismo@gorliz.net

07:30 Irteera Murgiara, Eliz plazako bus-geltokitik, 5 euro ordaindu beharra dago fidantzan, izena emateko orduan. Dirua autobusean bueltatuko dute.

11:00-14:30 Artisautza-azoka, San Pedro plazan.

Egun osoan Tabernen III. Pintxo Lehiaketa.

Azaroak 15, domeka

Egun osoan, San Pedro plazan: Perretxiko-erakusketa.

Zero Zabor taldearen erakusketa.

Umeen perretxiko-lehiaketa.

Jose Angel Azategiren «artisau-perretxikoen» erakusketa.

Argazki eta pintxo lehiaketen sari-banaketa.

Plentzia

«Munduan zale ugari ditu joko honek»

Txipiroi Bowl lehiaketa egingo dute azaroaren 15ean, domekan, Plentziako Goñi Portalean; aurtengoa zortzigarren edizioa izango da. Mahai-joko horren nondik norakoak azaldu ditu Igor Cuadrado Bilbao antolatzaileak.



Igor Cuadrado Bilbao da lehiaketaren antolatzaileetako bat.

IKER RINCON MORENO ▶

Beste urte batez, Plentziak *Blood Bowl* rol mahai-jokoan oinarritutako Txipiroi Bowl lehiaketa hartuko du. Norgahiagoka goizeko 10:00etan hasiko da, Goñi Portalen. Antolatzaileek opariak iragarri dituzte jokalarientzat.

Aurten, Txipiroi Bowl lehiaketaren 8. edizioa egingo duzue hilaren 15ean. Zertan datza norgahiagoka hori?

Blood Bowl izeneko mahai-jokoaren txapelketa da. *Blood Bowl* Erdi Aroko futbol fantastiko moduko bat da, futbol amerikarraren antzekoa. Hala, bi

taldek jokatzeko dute. Jokalari bakoitzak talde berezi bat dauka, eta talde horren arabera, jokalariek abilezia bat edo beste izango dute. Jokoaren helburua aurkako taldeak baino *touch-down* gehiago egitea da.

Nondik dator txapelketa hori egiteko ideia eta gogoa?

Aurtengoa zortzigarren edizioa izango da; orain dela zortzi urte hasi ginen ideia horrekin. Hemen, Plentzian, jokalaritalde bat ginen, eta taldean otu zitzaigun txapelketa hori egiteko ideia. Izan ere, txapelketa ugari daude: mundu osokoak, Bizkaikoak, EAEkoak ere bai. Berbarako, joan den

asteen jokoaren mundu-txapelketa izan zen. Guztira, 1.000 pertsona baino gehiago egon dira Luccan (Italia) egindako World Cup-en.

Zer egin behar da Txipiroi Bowlen parte hartzeko?

Horretarako webgunea sortu dugu, eta han eman daiteke izena. Sarrera 16 euroan jarri dugu, baina beherapena egingo dugu NAFekoak direnentzat eta aurretik ordaintzen dutenentzat. Hala, bi euroko beherapena izango dutek horie.

Zer da NAF?

Mundu mailako erakunde bat da, *Blood Bowl* jokoaren ingurukoa. Nahi dutenek horretan ematen dute izena, urteko kuota baten truke. Horrela, jokalariek txapelketen emaitzak jarri ditzakete bertan, ondoren ranking bat egiteko.

Parte-hartzaileentzako hainbat ezusteko prestatu dituzue aurten; hala da, ezta? Zeintzuk?

Bai; txapelketak igaro ahala, dado berezi batzuk edo miniatura batzuk ematea erabaki genuen. Oparitxo batzuk besterik ez dira.

Zer dela eta Txipiroi izena?

Nik ez nion izena ipini, baina pentsatzen dut Plentzia itsas herria delako. Arrantzaleen tradizioa handia da hemen... ◀

izena emateko: www.bilbalicup.com

Argazki-lehiaketan parte har daiteke hilaren zora arte

Udagoienean, mendiak eta basoak milaka kolorez janzten dira; gorriak, horiak, marroiak, laranja... kolore ugari zehar eta zuhaixkak aurki daitezke gure inguruan. Hori dela-eta, ohikoa da argazkilaritza-maitaleak, kamerak eskuan eta motxila lepoan, argazki polit horien bila joatea. Hori horrela, Araldi elkarteak argazki-lehiaketa antolatu du hil honetarako. Interesa dutenek Araldiren lokalean edo Goñi Portalen jaso ditzakete lehiaketaren oinarriak; lanak, berriaz, azaroaren 16tik zora bitartean aurkeztu ahal izango dira, Goñi Portalen bertan.

Lehiaketa horren 11. edizioa izango da, eta sari-banaketa hilaren 27an, barikuan, egingo dute, 19:00etan, Goñi Portalen. Ondoren, erakusketa egingo dute aurkeztutako argazki guztiakaz. Ostean, lan horiek abenduaren 15era arte ikusi ahal izango dira, kale Barrian dagoen Goñi Portalen. ◀

Narrazio laburren lehiaketa ere martxan ipini du Araldik

Argazki lehiaketa egiteaz gainera, Araldi elkarteak Narrazio Laburren Lehiaketa ere antolatu du. Hala, argazkien bitartez istorioak kontatzea gustuko ez dutenek, berbaz berba istorio laburrak kontatu ahal izateko buroari eragiten has daitezke eta eskuak prest izan ditzaten, denboraz iragarri dute lanak aurkezteko epea: urtarilaren 20tik 30era. XVII. edizioa izango da aurtengoa, eta aipatutako epea heltzean, Araldi elkartearen lokalean aurkeztu beharko dituzte lanak.

Parte-hartzaileek gai zehatz baten inguruan josi beharko dute istorioa: emakume baten autobiografia. ◀

info+: www.plentzia.org

Umeen Gabonetako Parkera joateko irteera antolatu dute

Gabonak heltzeagaz batera, oporak eta denbora libre hedatuko dira gurean. Hala, neska-mutilei eta umeei begirako parke tematiko ugari egongo dira abendu akabuan zein urtaril hasieran. Parkeen artean, eza-gunena eta handiena Barakaldoko BECen egiten dute: Umeen Gabonetako Parkea, abenduaren 17tik urtarilaren 5era arte. Plentziako Goñi Portal Kurtur Etxeak hara joateko txangoa

antolatu du, abenduaren 29rako. Irteera hori 2003 eta 2009 artean jaiotako neska-mutilei begira egingo dute. Hala, interesa dutenek izena eman beharko dute hilaren 27a baino lehenago. Txangorako hitzordua goizeko 10:00etan izango da, eta buelta, berriaz, arrastiko 18:00etan egingo dute.

Gabonetako Parkera sartzeko txartela 7,5 euroan eskura daiteke, leihatilan eta makina-saltzaileetan. ◀

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 78 96



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Urduliz

Kirol azpiegiturak areagotuz

Udalak kirol-eremu berri bat eraikitzeko proiektua onartu du. Iparralde futbol-zelaiaren ondoan egingo dute, eta 3,7 milioi euroko aurrekontua daukate.



Iparralde futbol-zelaiaren ondoan egingo dute kirol-gune berria.

Gaur egun dauden kirol-azpiegiturak hobetzeko proiektua martxan ipini du Urdulizko Udalak. Iparralde futbol-zelaiaren alboan eraikiko dute, eta obra horien lizitaziorako 3.668.759,28 euroko aurrekontua onartu du Udalak; kontratuaren egikaritze-epea 8 hilabeteak izango da.

Azpiegitura berri horren proiektuaren diseinua Arcain Ingenieria y Arquitectura estudioaren esku egon da. Eraikin berriak kirol ezberdin asko egiteko pista izango du, eskubaloiraiko zelai bat eta beste bi eremu txikiagoak, horiek umeen txapelketarako eta entrenamenduetarako erabiliko dituzte. Horiez gainera, igerileku handi bat egitea ere aurreikusi dute, klimatizatua izango ei dena. Halaber, gimnasioa, spa eremua eta padel-pistak ere egingo dituzte, besteak beste.

Proiektua fase bitan garatzea aurreikusi dute: futbol-zelaiko aldage-
len eraikinaren lekuan eraikiko dituzte lehenengo instalazioak. Hala, sarrera-ko eraikinean bulegoak, zuzendutako jardueren gela eta beste aldagela batzuk egingo dituzte. Beheko solairuan, berriz, gimnasioa, *cycling* eta tai-xi gela eta spa eremua egingo dituzte.

Diseinua Arcain estudioak egin du, aurretik, eskualdean beste hainbat lan egindakoa da. Horietako batean gertatutako auziak sortu du eztabaida: Pinosolo kirol-gunearenak. Aros eta Viuda de Sainz enpresek lortu zuten hura eraikitze esleipena, eta Arcain estudioagaz harremana ei zutelakoan, Lehiaren Auzitegiak adjudikaziorako lehiaketa illegaltzat jo zuen; Arcainen zirriborroen antzekoak aurkeztu zituztelakoan. Lehiaren Auzitegiak 89.000 euroko zigorra ezarri zion Arcaini; estudioak bere burua defendatzeko helegitea jarrita du EAEko Auzitegi Nagusian. ◀

Unibertsitatea

Prozesu parte-hartzailea hasiko du ikasle mugimenduak

Leioko EHUKo campusak badu ikasle mugimendu berria. Horretarako, unibertsitate mailan lan egiten duten eragile ezberdinak elkartu dira, subjektu hori «berriro aktibatze» asmoz. Azaldu dutenez, euren helburua «ikasleon hitza lehen lerrora» ekartzea izango da. Horretarako, ikasleek galdeketa bat egingo dute, ikasleko baldintzen inguruan hausnartu eta diagnostiko bat osatzeko. Horren bitartez, maila lokaleko borroka bideratzeaz gainera, horiek lehen lerrora eroan eta «hezkuntza eraldaketara» ekitea izango da euren helburua. Hori

lortzeko, Leioakoaz gain, Hego Euskal Herriko campusetako ikasleek egingo dute galdeketa. Inkesta horiek azaroko bigarren astean banatuko dituzte.

Lan hori burutu ahal izateko, hainbat eragile elkartu dira Leioan: Madamak Talde Feminista, Leioatik Proiektu Komunikatiboa, Gizarte eta Komunikazio Zientzien, Zientzia eta Teknologia eta Medikuntza fakultetako ikasle asanbladak eta Leioako Ikasle Abertzaleak. Unean uneko bateratze horretaz gain, etorkizunerako elkarlana sustatzeko borondatea agertu dute eragile guzti horiek. ◀

Ikasle presoen sostengurako taldea sortu dute: PREST

Ikasle presoen sostengurako taldea sortu berri dute Leioako EHUKo campusean. Talde horrek PREST du izena, eta campus horretako hainbat ikasle osatuta dago. Bilerak egiten hasi dira, baina, gogoratu dutenez, ez da talde itxia. Euren helburu nagusia «preso dauden ikasleei nahi dituzten gradu guztiak ikasteko baliabideak ematea da». Izan ere, euren ustean, Leioako

campusak eta, orokorrean, EHUK ez du jorratzen gai hori. Gogoratu dutenez, «Leioako campusak baditu bost ikasle preso, bere zailtasun guztiekin euren graduak aurrera ateratzen saiatzen ari direnak». Talde horretako ki-
deek aurreratu dutenez, nahiko ekin-tza dituzte buruan ikasle presoek nahi dituzten gradu guztiak behar bezala ikasi ahal izateko. ◀

Uribe Kosta



Horietan parte hartzeko izena eman daiteke daborduko.

Txikienentzako Gabonetarako egonaldiak prestatu dituzte

Neska-mutil gaztetxoek Gabonetako oporraldia primeran pasatzeko egonaldiak, *negulekuak*, prestatu dituzte Berangon, Getxon eta Lemoizen. Berangokoek azaroaren 18ra arte izena eman dezakete, mail bidez; abenduaren 21etik urtarrilaren 8ra egingo dituzte hainbat jarduera. Getxon, Bizarra Lepoan euskara elkartek 5-12 urte bitarteko umeentzako koloniak antolatu ditu, Bapiruke egitasmoaren barnean. Zabala eskolan eta Romo eskola publikoan antolatuko dituzte ekintzak, abenduaren

23tik urtarrilaren 5era arte; 09:00etatik 13:30ak bitartean. Bazkideek izena eman dezakete azaroaren 30etik abenduaren 2ra arte, eta bazkide ez direnek, berriz, abenduaren 9tik 11ra. Lemoizen, berriz, Mankomunitateak prestatu du 3-5 urte eta 6-12 urte artekoentzako koloniak, Armintzako kultur etxean egingo dituzte, 09:00etatik 14:00etara. Horietan izena eman daiteke daborduko, hilaren 22ra arte. ◀

harremanetarako: berangokultura@berango.org
www.bizarralepoan.eus
euskera2@uribekosta.org



Bisita gidatuak, berbaldiak, tailerrak eta ikuskizunak izango dituzte bisitariek. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Ekitaldi batzuk

Azaroak 12, eguna

17:00 Kupula geodesiko baten eraikuntza, UK Naturak antolatuta.

18:00 Bisita gidatua artistakaz.

Azaroak 13, barikua

17:00 *Una aproximación al comic feminista* berbaldia.

19:00 *La función del artista en el cambio social* solasaldia.

21:00 Algortako Musika Eskolako ikasleen eta Christian Fernandez Mironen kontzertua.

Azaroak 14, zapatua

11:00 *Fanzine express: Aquí y ahora* tailerra, La Tourette-*n* ekimenez.

12:30 *Somos los monstruos* umeentzako tailerra (3-12 urte), Emo Diazen ekimenez.

17:00-20:00 Emanaldiak, performanceak, antzerkia eta berbaldiak.

Azaroak 15, domeka

18:00 Sarien banaketa.

info+: www.getxo.eus/eu/getxoarte

Artista berriak, plazara!



Getxoartek 31 artistaren 30 lan erakutsiko ditu azaroaren 12tik 15era bitartean, Areetako Xake plazako karpan; bisitariek hainbat jarduera izango dituzte.

Eguenean hasi eta domekara bitartean, jatorri ezberdinetako 31 artistaren 30 proiektu ikusgai egongo dira Getxoarte aretoan; Areetako Xake plazan jarritako karpan, bere txokoa edukiko du sortzaile bakoitzak. Horien artean, Izaro Gonzalez Ieregi (Algorta, 1987) izango da eskualdeko ordezkari bakarra; Uribe Kostako beste artistarik ez du aukeratu epaimahaiak. Algorta-

rrak *EH Fatigue* lana erakutsiko du Getxoarten; euskal komunitatearen eta Y belaunaldiaren inguruko azterketatik sortutako obra da.

Getxoko Kultur Etxeak adierazi duenez, «artista berrien lana bultzatzea du ardatz nagusia Arte-praktika Garaikideen Aretoak. Hala, aurten ere Getxoarte-Artium saria banatuko dute; ikusgai dauden 30 lanen artetik bat aukeratuko dute, eta 2.000 euro ja-

soko ditu egileak. Horrez gainera, Arabako Artium Museoagaz izenpetutako hitzarmenaren bitartez, Gasteizen ipiniko dute ikusgai saritutako obra. Baina artisten lanen erakusketa ez ezik,

Bi mila eurogaz sarituko dute Getxoarte aretoan ikusgai egongo den artelanetako bat

beste jarduera batzuk ere egongo dira Areetako Xake plazako karpan; bes-

teak beste, berbaldiak, mahai-inguruak, bisita gidatuak eta umeentzako tailerrak edukiko dituzte bisitariek, lau eguneko epean. Modu berean, artearen mundua eta arte eszenikoak lotuko dira, dantzaz, musikaz eta performanceaz baliatuta.

Aurten, gainera, Getxoarteren lana Udaleko beste arlo eta zentroetara zabaldu da. Horrenbestez, Romo-Artatza institutuko Arte-Batxilergoko ikasleentzako tailerrak antolatu dituzte, baita Gaztelekuko erabiltzaileentzat ere. Bestalde, Immigrazio Zerbitzuaren ekimenez, umeentzako tailerra egongo da. ◀

ArgIHizkiak lehiaketaren erakusketa, Algortan

Urriaren 1ean Kultur Leioan inauguratu zuten ArgIHizkiak literatura-lehiaketako laugarren edizioaren erakusketa ibiltaria; urriaren 18ra arte bertan egon ziren ikusgai erakustaldia osatzen duten 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko 20 testu laburrak. Bada, azaroaren 16tik abenduaren 13ra, Algortako Villamonte kaleko kultur etxean egingo du geldialdia; eraikineko barruko hormetan ipiniko dituzte irudiak eta idatziak. Ordutegiari dagokionez, astelehenetik bari-kura, 08:30etik 14:30era eta 16:00etatik 21:30era bisitatu ahal izango da ArgIHizkiak; zapatuetan, 09:00etatik



Leioan banatu zituzten aurtengo sariak.

13:00etara egongo da zabalik. Sarrera doan izango da.

Egizu elkarteak eta HIRUKA komunikazio-taldeak antolatzen dituzte literatura-lehiaketa zein erakusketa, hainbat udalegaz eta elkartegaz batera. ◀

Getxora helduko dira Zinebiren ikus-entzunezkoak

Aurrekoetan legez, Getxon ere emango dituzte Zinebi Dokumentalen eta Film Laburren Bilboko Nazioarteko Jaialdiaren hainbat lan. Hala, azaroaren 16an (astelehena) eta 17an (martitzena) saio bana egongo da Algortako kultur etxean, Villamonten. Hitzordua 19:30ean ipini dute; sarrera, doan. Lehenengo egunean, lehiaketara aurkeztutako ikus-entzunezko lanen aukeraketa bat egongo da ikusgai; zazpi dokumental eta film labur, denera. Hurrengo egunean, Euskal Informagariak ataleko beste zortzi lan emango dituzte. Azaroaren 13tik 20ra egingo da Zinebiren 57. edizioa, Bilbon. ◀

info+: zinebi.com/57

Mutur Beltz proiektua aurkeztu du Laurita Silesek

Garai batean Algortan bizi izandako Laurita Siles artista andaluziarrak eta Joseba Edesa Portillok Mutur Beltz bizi-proiektua aurkeztu zuten, azaroaren 8an, Balmasedako La Encartada fabrika-museoan. Biziarte Fundazioaren beka bati eta Eusko Jaurilaritzaren diru-laguntzari esker, objektu-eskultura bi egin dituzte: BiziKarder, artilea kardatzeko bizikleta; eta BiziRueka, goru bat bizikleta baten gainean. Artilea lantzeko tresna horiek biak dira ekintza eta pieza multzo baten abiapuntuak. Berbarako, Karrantzako ardi mutur beltzen artileaz egindako txapela-sorta mugatua. ◀

info+: karrantzakomuturbeltz.blogspot.com



SOPELA

Irakurle Klubean parte hartuko du Katixa Agirrek

Sopelako Irakurle Klubak gonbidatuta, azaroaren 19an, eguazitena, Kurtzio kultur etxean izango da Katixa Agirre idazle gasteiztarra, *Atertu arte* *itxaron* (Elkar, 2015) bere lan berriaz berba egiteko. Hitzordua 19:00etan ipini dute; sarrera, doan. Trebezia handia erakusten du Agirrek bere lehenengo eleberri honetako hari mataza desberdinak josten: 1976ko

martxoko Gasteizko borrokak agertuko dira batean, Benjamin Britten kompositore ingelesa beste batean... Pertsonaiek Lekeitioko hondartzak, Arabako bailarak, Bilboko koktele-riak edo Baztango baserriak bisitatu ahala, dotoreriaz uzartuko ditu egileak berriketa arinak eta hainbat gairen gaineko gogoeta finak. *Atertu arte* *itxaron* liburuak *road movie* delakoen

antzeko bat da Euskal Herrian barre-neko ibilaldia, Elkar argitaletxeak dioenez. Uliak bere sorterria erakutsi gura dio bikotekideari, eta ibilbide la-sai bat prestatzen dute, bigarren mai-lako errepideetan, Gustavoren BMW berrian. Hala ere, Uliak aitortu bako sekretuak dauzka; bidean topaturiko ezagun batek ekaitza iragarriko du bikotearen harmonian... ▼

2015/11/12 - 09:00-19:00

Emakunderen autobusa

Berango-Merana ikastetxea | Berango
Azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Doan.

2015/11/12 - 18:00

El cuarteto filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/12 - 18:00

Neska eta mutilen artean: mundu bat ipuin-kontaketa

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Alberto Bargas ipuin-kontariak eskainitako saioa. 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2015/11/12 - 19:00

El futuro de Uribe Kosta en Navarra berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo
Bolivartiar Ikaskuntza Elkarteak antolatuta. Gaizka Basaldua Libertate Nafarra (LN) alderdiko idazkariak egingo du berba. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/12 - 19:00

Parlamentando topaketa

Nagusien etxea (Errekalde plaza) | Leioa
Leioako Ahal Dugu-k antolatuta. Elsa Pamparacuatro Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkariak eta Xabier Benito Europako legebiltzarkide ohiak parte hartuko dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/12 - 19:30

Accion y movimiento argazki tailerra

Anbulatorio zaharra (Astrabudua) | Erandio
Radio Club Takolos taldeak antolatuta. Doan.

2015/11/12 - 20:00

Peter Abelsen rock kontzertua

El Comercio (Areeta) | Getxo
Getxo Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

2015/11/13 - 2015/11/18

Kalezulo gaztetxearen laugarren urteurrena

Jose Luis Goibaga 11 (Altzaga) | Erandio
Hilaren 21ean izango da ospakizunen egun handia. Informazio gehiago: hiruka.eus/agenda

2015/11/13 - 17:30-19:30

Barikuetan Jai: euskaraokea

2015/11/14 - 19:30

II. Track 1 Fest musika-jaialdia

Josu Murueta plaza (Astrabudua) | Erandio
Track 1 Musika Elkarteak antolatuta. Moncada 20, Lyonheart, Kauce, Huicidas eta The Stators taldeek parte hartuko dute. Sarrera, doan.

2015/11/14 - 20:00

Alberto Urretxoren Soinuaren bidaia diskoaren aurkezpena

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Musikaldia jaialdiaren barruan. *Serenata de Polentzi* film laburra ere eskainiko du musikariak. Sarrera: 3 euro.

2015/11/14 - 20:15

Regresion filma

Urdulizko kultur etxea | Urduliz
12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2015/11/15 - 08:00

El bosque en otoño argazki-irteera

Astrabuduko taxi-geltokia | Erandio
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2015/11/15 - 10:00

Umeentzako musika-tailerra eta kontzertua

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Musikaldia jaialdiaren barruan. 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat. Tailerra 10:00etan izango da (izen-ematea, musika-eskolan); eta kontzertua 11:30ean. *Denboraren makina* eta *Olhanetik txangoa* eskainiko ditu Euskadi Brass taldeak. Sarrera: 3 euro.

2015/11/15 - 10:00-20:00

Txipiroi Bowl lehiaketa

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Blood Bowl rol mahai-jokoan oinarritutako txapelketa. Izen-ematea: www.bilbalicup.com

2015/11/15 - 11:00-15:00

Sahararen aldeko azoka txikia

Nagusien Etxeko plaza | Berango
Bigarren eskuko gaiak egongo dira salgai. Eguraldi txarra egiten badu, frontoian izango da.

2015/11/15 - 17:30-18:30

Irripuinak Largabistagaz

Algortako kultur etxea | Getxo
Sendik antolatuta. 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat, eta euren gurasoentzat. Euskaraz. Aurretik, izena eman beharria dago.

2015/11/15 - 19:00

Maria Agirre eta la luna filma

Antzezleak eta

txotxongiloak batuz

Beldartxo jatuna antzezlana oholtzara eroango du Didau Antzerki Faktoriak zapatu honetan, azaroak 14. Umeei zuzendutako euskarazko lana Sertutxena eraikinean egongo da ikusgai, 18:30etik aurrera; sarrera, doan. ◀


Euskarazko zinea, neska-mutilentzat

Domeka honetan, azaroak 15, *Maya erlea* animaziozko pelikulaz gozatzeko aukera edukiko dute neska-mutilek, Berango Antzokian. Filma euskaraz emango dute, 18:00etatik aurrera; sarrera, doan. ◀

Antzerki-teknika berriak ikasten

Eguaztenean, azaroak 18, *kamishibai* tailerra edukiko dute Barrikako liburutegian 6 eta 12 urte bitarteko umeek. Saioa 17:30etik 19:00etara izango da, doan. Izena eman beharra dago. ◀

izena emateko: 946 775 163



Bertsoa baino askoz gehiago, Algortan

Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariek sortutako ekimena da *Ez gara Palestinaz ari*; bertsoa, antzerkia, poesia eta musika batzen dituzte. Imanol Kamio eta Aitor Axega izango dira ikuskizunari piano, gitarra eta akordeoiaren doinuak ipintzearen arduradunak. ◀

Noiz: Azaroak 19, eguena.
Ordua: 20:00
Non: Azebarri kultur elkartea (Euskal Herria etorbidea, 14-16)
Sarrera: Doan
Getxoko Udalaren Berdintasun eta Euskara zerbitzuek antolatuta.

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

argihizkiak.com

argihizkiak

muña a la luz de la luna filma Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2015/11/15 - 19:00

El día de las hormigas perdidas filma

Areetako musika-eskola | Getxo
Igandeko Haur Zinea zikloaren barruan. Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2.10 euro.

2015/11/16 - 19:00

Irakurle-kluba

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Paula Hawkins idazlearen *La chica del tren* eleberria aukeratu dute. Gaztelaniaz izango da saioa. Sarrera, doan.

2015/11/17 - 09:15

Cristina Escobar kazetari kubatarren berbaldia

Komunikazio Zientziak (EHU) | Leioa
Kazetaritzako irakasle eta ikasleakaz batuko da; baita hurbidu gura duten herritarrekaz ere. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/17 - 20:00

Yo mate a mi madre filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo Zineforumaren barruan. 16 urtetik gorakoentzat. Jatorrizko bertsoian, azpittuluakaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2015/11/18 - 17:30

Familias de hoy: ¿como es la tuya? berbaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Umeen Egun Unibertsala dela-eta, Uribe Kostako Mankomunitateak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/18 - 19:00

Versadas olerki-kluba

Algortako kultur etxea | Getxo
Erromantizismoaren garaiko Rosalia de Castro idazle galiziarren gainean jardungo dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/18 - 19:30-21:00

Argazki-ediziorako eskola

Atxutegi Kalea, 15 (Astrabudua) | Erandio
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2015/11/18 - 19:30

Bizancio, conceptos y realidades berbaldia

Sertutxena eraikina | Gortiz
Koldo Gondra del Campo historialariak emango du. Sarrera, doan.

Kultur Leioako ingurua | Leioa

Familia osorako jolasak. Euskaraz. Doan.

2015/11/13 - 19:00

Carlos Saez ipuin-kontalariari omenaldia

Algortako kultur etxea | Getxo
Kontularien Klubaren saioa. Gaztelaniaz. Doan.

2015/11/13 - 20:00

Jazz Gaua

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Musikaldia jaialdia. Itxaso Gonzalezek (ahotsa) eta Jose Luis Canalek (pianoa) emango dute kontzertua. Sarrera: 3 euro.

2015/11/13 - 21:00

Captives filma eta berbaldia

Areetako musika-eskola | Getxo
Cinema Paradiso zikloaren barruan. Ingelesez, gaztelaniazko azpittuluakaz. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90 euro.

2015/11/14 - 2015/11/16 - 20:00

Aprendiendo a conducir filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
12 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2015/11/14 - 2015/11/15 - 17:30

Tom txiki eta ispilu magikoa animaziozko filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.

2015/11/14 - 11:00-14:30

Artisautza-azoka

San Pedro plaza | Gortiz
Gortizko XIV. Perretxiko jardunaldien barruan. Tabernen III. Pintxo Lehiaketa ere egingo dute.

2015/11/14 - 11:00

Circus ipuin-kontaketa

Algortako kultur etxea | Getxo
Familia osoarentzat. Ingelesez. Sarrera, doan.

2015/11/14 - 18:00

Pinocho y su amiga Coco filma

Urdulizko kultur etxea | Urduliz
Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2015/11/14 - 19:00

Debussy kontzertu didaktikoa

Impromptu taldeagaz

Berango Antzokia | Berango
Azaroaren 25eko Enakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Maite Castells Alonso pianista gazteak ere joko du. Sarrera, doan.

Azaroaren 16tik
abenduaren 13ra

Villamonteko
kultur etxean

egizul



Astequinetan
9:00-14:00
16:00-21:30
Zapatuetan
9:00-13:00



Zientzia-pilulak

**EDUARDO
SAN ANDRES ARANA**
Matematika irakaslea

Doppler efektua eta Big Bang teoria

Joan den mendeko 20. hamarkadan Edwin Hubble astronomoak hainbat urte eman zituen Einstenek aldeztutako aurretik aurresan zuen teoria bat frogatzeko, galaxia guztiak aldentzen ari direla hain zuzen, puzten ari den puxika baten antzera, hau Big Bang teoriaren alde zihor gertaera bat izanik. Gainera aldentze abiadura eta honainoko distantzia proportzionalak direla frogatu zuen: zenbat eta urrunago egon, gero eta bizkorrago aldentzen da gugandik. Hubble-en legea deritzo. XX. mendeko aurkikuntza harrigarriena bat da. Baina, zelan behatu zuen galaxia guztiak aldentzen daudela? Doppler efektuan oinarritzen da. Denok nabaritu dugu noizbait. Espaloian egonda motorra bat gerturatzen bazaigu soinu altua antzeman dugu, eta gure aurretik igaro eta gero, aldentzean, soinua baxua izango da, ...ñiiiiiiiiiii... uuuuuuuu. Uhin igorle bat gerturatzen dagoenean, uhin fronteak pilotzen dira bere aurretik, frekuentzia handiagoa ailegatzeko zaigularik, hau da, legokion baino soinu altuagoa, eta aldentzen denean uhin fronteak sakabanatzen dira, soinu baxuagoa bidaliz. Argia ere uhin bat da, kasu honetan elektromagnetikoa, eta frekuentzia, kasu honetan, ez da soinuaren altuerara baizik eta kolorea, eta efektu berbera sortzen da. Hau da, argi igorle bat aldentuz doanean dagokion baino frekuentzia txikiagoa igortzen du, eta kolorea, legokion baino gorriagoa da. Gorrirako desplazamendu hau galaxia guztietan behatu da, unibertsoaren hedakuntza baieztatuz.

Gaur gauean, ilunabarraren ixilpean, altxatu aurpegia izarretarantz. Gizakiok milaka urtetan zehar bizkarrezurrean sentitu dugun zirrara sumatuko duzu. Amets egin. Zientziaren eskutik. ◀



Joan den azaroaren 5ean eman zioten hasiera Udagoieneko Ostera egitasmoari. EUSKALTZALEON TOPAGUNEA

Udagoieneko Ostera eta Kameratoia abian dira

Azaroaren 27ra arte gozatu ahal izango da euskarazko Kultur zirkuituaren edizio berriaz. Era berean, Kameratoian parte hartzeko, hilaren 30era arte izena eman daiteke.

Hamabosgarren udagoiengan ere, martxan da Bizkaiko euskarazko Kultur zirkuituaren edizio berria. Horretarako, Euskaltzaleen Topaguneak zuzeneko bost emanaldi antolatu ditu, azaroaren 5etik 27ra arte bitartean, Bizkaiko bost antzokitan gozatu ahal izango direnak. Udagoieneko Ostera Gernikan hasi zen, eta jarraian Balmaseda, Muskiz, Bilbo eta Leioa bisitatuko ditu. Era berean, Gernikan eta

Bilbon berbaldi bana egingo dituzte zenbait euskal sortzaileguz; hurrengo Mikel Markez eta Eñaut Elorrietagaz Bilbon, hilaren 25ean. Astero euskarazko ikuskizun bat egongo da, kultura euskaraz gozatzeko aukera; astero, elkarregaz disfrutatu, edo, zergatik ez, nork bere buruari opari bat egiteko. Hori horrela, aurten Mursego-Kalakan, Hutsa-Demod Quartet, Benito Lertxundi, Libe-Sorkun eta Oreka TX-k antzokiak isiotuko dituzte euren musi-

Hurrengo saioak

Azaroak 13, barikua

20:00

Hutsa eta Demod Quartet, Balmasedako Klaret antzokian.

Azaroak 20, barikua

20:00

Benito Lertxundi, Muskizko Meatzari aretoan.

Azaroak 25, eguaztena

10:30

Libe eta Sorkun taldeen solasaldia, Bilboko Kafe Antzokian. Sarrera doan.

Azaroak 26, eguena

21:30

Libe eta Sorkun, Bilboko Kafe Antzokian.

Azaroak 27, barikua

21:00

Oreka Tx, Leioako Kultur Leioan.

kagaz edo antzelanaz. Sarrerak Interneten, Kutxabankeko kutxazaintan, eta aretoetan bertan eros daitezke.

Tokikom saria, sortzaileentzat

Bestalde, Euskaltzaleen Topaguneak, Kameratoia Euskal Herriko Ikus-entzunezko Rallyaren XI. edizioa ere prest dauka. Aurten, Irudienea gunean egingo dute, Durangoko Azokaren barruan. Lehiaketa 18 eta 25 urte arteko gazte sortzaileei zuzenduta dago, eta 3.600 euro banatuko dituzte saritan, tartean, Tokikom saria, lehengo aldiz emango dena. Parte hartzeko, hilaren 30era arte izena eman daiteke. ◀

info+: topagunea.eus

Erandioko Musika Eskolaren saioak, prest!

Erandioko Musika Eskolak kontzertu bi eskainiko ditu hil honetan. Lehenengoa azaroaren 18an izango da, eguaztenagaz. Egun horretan, 19:00etan, ikasleak Bekoa ikastetxetik abiatuko eta Altagako kaleetatik ibiliko dira trikitia, panderoa eta haize-tresnak astintzen, auzokideen gozamenerako. Kalez kale joko dute, Irailaren 23a plazan amaitu arte. Hurrengo saioa hilaren 19an, eguena, egingo dute, Astrabuduko Josu Muruetako Areto Nagusian. Egun horretan, kontzertua 19:00etan hasiko da.

Erandioko Musika Eskola arautu bako musika-irakaskuntzarako udal zentroa da, erandioztar guztiek musi-



kagaz bat egiteko topagune nagusia ere bada. Musika-gelak dituzte Astrabuduan (Josu Murueta kultur etxea) eta Altagako Bekoa ikastetxean. Lau urtetik gorako umeei, gazteei, helduei eta adinekoei ematen dizkiete klaseak, adin muga barik. ◀

info+: www.erandio.net

Travellin' Brothers talde leioaztarra European dabil, biran; azken geldiduna: Leioa

Travellin' Brothers blues talde leioaztarra *Magnolia Route* izeneko biran murgilduta dabil egunotan, European. Joan den irailaren 25ean Beasainetik abiatuta, Caceres, Sevilla, Texel (Holanda) eta Frederikshaun (Danimarka) bisitatu dituzte daborduko, besteak beste. Oraindino ere, hainbat saio dituzte bira horretako agendan; eta zelan ez, Leioa aukeratu dute azken geldialdirako, Kultur Leioan amaiera ezin hobea emateko: abenduaren 18an. Aurretik, Bilbon joko dute, azaroaren 28an, Kafe Antzokian. Halaber, otsailean disko berria kalera-tuko dutela aurreratu dute. ◀

«Berdinen arteko komunikazioa
bermatzen du jazz-musikak»

Itxaso kantari sopelarrak
bere herrian emango du
jazz-kontzertua, azaroaren
13an, Jose Luis Canal
pianistagaz batera.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Neguri Langilekoa izan arren, orain dela urte batzuk Sopealara joan zan bizitzen Itxaso Gonzalez Gonzalez jazz-bakarlaria. Musikaldiaren barruan, Kurtzio kultur etxean emango du kontzertua izen artistikoa Itxaso duen abeslariak, Jose Luis Canal pianistagaz batera. Brasilgo musika eta eurek jo ohi dituzten abestiak nahastu dituzte, *Conversations* izeneko egitasmoa osatuz. Diskoa grabatzeko asmoa dute, laster.

Berezia izango da zuretzat Sopelako Musikaldian abestea?

Batetik, Jose Luis Canal pianistagaz batera jardutea berezia da; erreper-
torio polita osatu dugu Musikaldirako.
Buruan geneukan Brasilgo musika eta
jo ohi ditugun hainbat abesti nahas-
tea; *Conversations* izeneko egitasmoan
horixe bera lortu dugu. Bestalde, gaur
egun nire herria da Sopela, eta berton
abestea zirraragarria da.

Zergatik aukeratu zenuen jazza abeslari-ibilbideari ekiteko?

Kantu klasikoan trebatu nintzen arren, nahiko goiz hasi nintzen musika modernoan eta inprobisazioan interesatzen. Jazzak ezaugarri asko ditu, baina garrantzitsuena, agian, izan daiteke berdinen arteko komunikazioa bermatzen duela. Abesti bat, egoera bat, soinu bat... nahikoak dira musikarien arteko interakzioa sustatzeko eta kon-



Gorka Benitez eta Dani Perezegaz grabatu zuen *New Land - Lur berria* (Elkar, 2000) diskoa Itxaso abeslariak.

tzertuan zehar bide berri bati ekiteko.
Hori da jazzak daukan xarma.

Bilboko Arriaga Antzokian egin zenuen estreinaldia 1989an. Zer duzu gogoan garai hartatik?

Hasiberria nintzen orduan; gustuko nituen musikariak ezagutzeaz gainera, eurengandik asko ikasi nuen. Denen artean, Dani Perez eta Carlos Garcia *Tato* eredugarriak izan dira niretzat; eurakaz harremanetan hasi bezain laster, hasi ziren egitasmo berriak sortzen. Garai garrantzitsua izan zen niretzat; gauza asko gertatu zitzaizkidan, eta oso onak, denak.

**Gainera, bigarren saria eman zizuten
1992ko Getxoko Jazz Jaialdian.**

Bai. 1992an saria irabazi nuen, eta orain dela urte batzuk deitu ninduten Getxoko Jazz Jaialdian epaile izateko.

Emakume batentzat ez da erraza jaz-
zaren munduan leku bat egitea; ho-
rrez gainera, festibaletan epaile jar-

“Emakumezko
batentzat ez da erraza
izaten jazzaren munduan
lekua egitea”

duteko kontuan hartzen bazaituzte...
Poz-pozik jarri nintzen deiagaz.

Hiru urtean Bartzelonan bizi izan zinen. Zer ikasi zenuen?

Besteak beste, politikariagaz zerikusirik ez daukan Jordi Puyol ezagutu nuen Bartzelonan; Fresh Sound diskoetxea daroa berak. Nire lana asko gustatu zitzaion; euskarazko hainbat

abesti neuzkan eskuartean, batzuk Mikel Laboarenak, eta horiekaz disko bat grabatu behar genuela esan zidan. Esan barik doa ni ez naizela kanta-sortzailea; gustatzen zaizkidan abestiei nire ukitua ematen saiatzen naiz.

Herriminetik sortutako lana izan zen 2000. urteko *New land - Lur berria* lana. Izan ere, Elkarregaz grabatu gura nuela izan zen Puyoli ipini nion baldintza bakarra. Diskoa grabatzeaz gainera, hainbat taldegaz abestu nuen, eta musika-eskolak eman nituen han. Beste garai batzuk ziren.

Zertan zabiltza azkenaldian?

Iñaki Salvador, Gorka Benitez, Borja Barrueta, Victor Moliner eta beste hainbat musikarigaz saioak egin ditut. Horrez gainera, Itxaso Quintet izeneko boskotea daukat. Eten barik sortzen dira proiektu berriak. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ **Bazkide Erabiltzailea**
☐ **Bazkide Laguntzailea**

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____€

Izena										NA								
-------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	----	--	--	--	--	--	--	--	--

[illegible][illegible][illegible][illegible][illegible]

Kontu korrante zenbakia															
-------------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua, 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileak HIRUKARi emanadako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen informazioa eta HIRUKARen informazioa eta publikatzea helarazteko. Bestelako erabiltzaileak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak helarazteko baimenaren bidez erabiltzailearen datuak erabiltzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake hona jarraituz: hiruka@hiruka.eus

«Immigrazioaz ari garela, zerk egiten du pertsona bat etxekoa eta zerk ez?»

Etxekoak euskarazko antzezlanak Huts Teatroak Artedrama Kultur Leioako konpainiaren magalean egindako bigarren sorkuntza da; Jon Gerediaga bilbotarrak idatzi eta Ander Lipus markinarrak zuzendu dute. Ezsenatokian, antzeztu ere egiten du Lipusek. Hain zuzen ere, Lipusen istorio pertsonal batetik abiatzen da *Etxekoak*; maitasuna abiapuntu, immigrazioaren gaia jorratzen du, umore-kutsua emanez. Azaroaren 20an, Kultur Leioan oholtzaratuko dute antzezlanak, 20:30ean. Sarrerak 10 euroan egongo dira.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Azaroaren 1ean Luhuson (Lapurdi) estreinatu zuten *Etxekoak* antzezlanak. Zelakoa izan zen harrera?

Ander Lipus: Egia esan, arriskatu ginen obra lehen aldiz ematen publikoaren aurrean; normalean, beti egiten dira aurrestreinaldiak. Baina, oraingoan, ez genuen denborarik eduki, edo ez genuen baloratu... Zeinek daki! Tupustean eman genuen estreinaldia, eta harrera beroa izan zen; estreinaldiek beti edukitzen dute su hori. Baina, aldi berean, bitxia izan zen. Izan ere, Hego Euskal Herriko jendea ere hurbildu zen Luhusora; inguruan eduki genituen gure proiektua babesten dabiltzan lagunak, baita aita-ama eta bestelakoak ere. Lehenengo saioak sorrazten duen tentsioa alde batera utzita, oso gustura geratu ginen.

Azaroaren 20an, etxera, Leioara ekarriko du Huts Teatroak lan berria. Bira bikaina prestatu duzue *Etxekoak* Euskal Herrian barrena plazaratzeko.

A.L.: Azken batean, egindako lan handiaren ondorioa da. Proiektu artistiko bat daukazunean, hori bideragarri eta ikusgarri egingo duen ekoizpen-talde bat behar duzu. Zerbait baldin badaukagu hemen, horixe da: Artedramak daukan lantaldea. Horri esker, eta, urteen poderioz, gure ikuslegoa egiten joan gara. Gainera, ematen du herrietako programatzailerik gure proiektuetan fedea daukatela. Bestalde, guk argi daukagu euskaraz bakarrik egiten dugula lan; euskal komunitatera heldu nahi dugu. Horrek esan gura du Maulen egongo garela, Larresoron izan ginen moduan. Bertoko konpainia izanik, Leioan ere

taularatuko dugu *Etxekoak* antzezlanak, azaroaren 20an; Leioak aterpea ematen digu, ez bakarrik egotza utziz, baita sorkuntza-prozesuan entseguetako batzuk bertan egiteko aukera eskainiz ere.

Ander Lipusen bizipen pertsonal bat dauka oinarrian antzezlan honek.

A.L.: Bai. Aspalditik nahi nuen Jon berriro konbenitzu elkarrekin lan egiteko, baina ez genuen aurkitzen aldarerik, gairik, edo zerbait bioi gogo hori pizten zigunik. Halako batean, nire historia pertsonala

“Euskarazko antzezlanak baino ez ditugu egiten; erdarazkorik ez. Euskal komunitatearengana heldu nahi dugu”

kontatzera joan nintzaion. Ni kubatar emakume batekin maitemindu nintzen. Bera hona ekartzea sekulako arazo burokratiko eta administratiboa izan zen; dirutza gastatzeaz aparte, oztopo-pila jarri ziguten. Hau da, europarrok edozein tokitara bidaia dezakegu lasai asko eta libre, baina argi ikusten da Hego Amerikako edo Afrikako jendeak beste zailtasun batzuk dituela. Hori abiapuntu hartuta, maitasun is-

torioa barne, Jonengana joan nintzen, eta immigrazioaren gaiarekin zerbait egitea proposatu nion.

Immigrazioaz hitz egiten dudanean, etxekoaren ikuspuntutik ari naiz; ez bakarrik administrazioaren kontra jotzea, baizik eta guk nola hartzen dugun kanpotik datorrena. Azken finean, zerk egiten du norbait etxekoa izatea eta zerk ez? Jonek baiezkoa eman zidan, eta hortik aurrera hasi ginen osatzen lantalde artistiko eta tekniko guztia. Gainera, behin lanean hasita konturatu ginen niri gertatutakoa pentsatzen genuen baino ohikoagoa dela. Besteak beste, zuzendari laguntzaile daukagun Mariya Aneva bulgariarra da, eta bere garaian, oztopo piloa aurkitu zuen hemen bizi ahal izateko; aktoreetako batek Aljeriakoa dauka mutila... Saltsa hori hartuta abiatu ginen, nire historia izatetik geure istorio bilakatu den arte.

Zeintzuk dira antzezlanaren pertsonaiak? Zelan egituratzen da istorioa?

Jon Gerediaga: Antzezlanaren pertsonaiak lau dira: alde batetik, amama dago; gero, bi osaba, Goio eta Imanol; eta azkenik, Maddi iloba, protagonista-papera daukana, Afrikan egonaldia egin ostean Mamadou izeneko mutilarekin maitemindu dena. Ez da ohikoena horrelako familia bat topatzea, etxean osaba bi eta amama dauzkana; baina, aldi berean, horrek aukera ematen zigun dramaturgia guztia martxan jartzeko. Lipus eta biok biltzen ginenean, arlo pertsonaletik abiatuta, berari gertatutako zeozer



Etxekoak

Huts Teatroa - Artedrama

Zuzendaria:

Ander Lipus

Idazlea:

Jon Gerediaga

Aktoreak:

Kristiane Etxaluz, Javier Barandiaran, Ander Lipus eta Maika Etxekopar.

Ezin da edonor etxean sartu. Hala dio legeak. Maddik Mamadou maite du. Halaxe dio bihotzak. *Etxekoak* istorio pertsonal batetik abiatzen da.

«Itsasoaz bestalde maitemindu nintzen. Atzerriko lagunagaz egoteko aukera bakarra ezkontzea izan zen. Eta hor hasi zen dena: burokrasia, paper administratiboak, joan-etorri zenbatezinak, elkarriketak kontsulatuan... urteetako erokeria eta zentzugabekeria hutsa», dio Lipusek.

Esperientzia horretatik abiatuz, egungo gizarteak eta estatuek sortu eta eraiki dituzten muga eta lege absurdoen kritika egitera doaz antzezlan berri honeguz. *Etxekoa/kanpoko*a dikotomian, gaur egun hain presente dugun immigrazioaren gaia jorratuko dute.

kontatzen zidan; horrek aukera ematen zigun pertsonaia horietan oinarrituta eszena guztia harilkatzeko.

Kritika kutsu bat ere badago, ezta?

J.G.: Batez ere, maitasun istorio batetik abiatzen da obra, baina kritika kutsu hori zeharka agertzen da. Izan ere, ez da guk asmatu dugun ezer; errealitatean gauza latzagoak gertatzen dira, umore gutxiagorekin gainera.

Jon, behin baino gehiagotan esan duzu antzerkia idaztea Lipusi berari zor diozula.

J.G.: Antzerki-animalia Lipus da; askotan berak planteatzen ditu eszenak, dramaturgia, ordena edo zer kontatu daitekeen eta zer ez. Hor hitzak paratu baino ez dut egiten nik.

Bost urte egin dituzu antzerkitik urrun. Zergatik?

J.G.: Antzerkia talde-lana da; ez da norberak etxean idatzi, eta gero errespetatu behar den gauza bat. Alde soziala ere badauka. Orain dela bospasei urte ezkondu egin nintzen, eta umeak eduki nituen; jendearekin ibiltzeko gogo gutxiago neukan, eta antzerkia alde batera uztea erabaki nuen. Aurrerantzean, batek daki zer gertatuko den. Ondo pasatu dut antzezlan egiten, baina nekosoia ere bada.

Zeure burua antzerki-gizontzat sentitzen duzu?

J.G.: Beti esaten dut ezetz; hasi beharko naiz esaten apur bat banaizela. Izan ere, limurtzen nau kome-

dianteen karabanak. Dena den, ez naiz erabat antzerki-animalia sentitzen; hizkuntza ez dut oraindik kontrolatzen. Ahal dudana egiten dut; gauza asko ikasteko daukat oraindik.

Zelangoa izan da bien arteko oraingo elkarlana?

A.L.: Oso aberasgarria da; elkarren osagarriak gara, gutxitan egoten gara kontrari. Hori bai, oso autokritiko bilakatu gara; kea ateratzeraino. Lehen ardura-gabeagoak ginen, eta azkarrago erabakitzen genuen eszena bat edo bestea sartu, istorioari bizitasuna

“ Bere tristezia, gabezia, poz eta garraztasun guztiarekin, antzerkian, dena eskaini gura diogu publikoari ”

emateko bazen. Orain bilakatu gara, ez dakit... Kontserbadoreagoak ez da hitz egokia...

J.G.: Detaile-zaleagoak.

A.L.: Zehatzagoak; neurotikoagoak, agian.

J.G.: Obsesiboagoak.

A.L.: Kar, kar. Horretaz aparte, egia da estreinatzerako momentua heldu denean testuaren bederatzigarren bertsioa geneukala eskuetan. Horrek esan

nahi du hasi ginenetik prozesu oso luzea izan dela. Beste dramaturgia guztietatik igaro behar du idazketak, batez ere aktoreen hitzetatik. Baina, ez bakarrik hortik. Eszenografia, argiak, musika, attrezzoak, jantziak... antzerkia talde-lan bat da; guk izen propioak baino ez ditugu jartzen. Atzean 17 edo 20 pertsonako lan-taldea dago, eta denek ematen dute zeozer.

Pozgarriena da ikustea biok bukatu dugula oso akituak. Halako hutsune bat sentitzen dugu, baina ezinbestekoa da; oso beteta eduki ditugu burua eta gorputza hiru urtean. Azkenean, publikoari emaitza eder bat eman nahi diozu; bere tristezia, gabezia, poz eta garraztasun guztiarekin, dena eskaini gura diozu publikoari. Izan ere, gure ofizioa hori da. Hustasun horretatik, oso betegarria izan da.

Horrenbeste lan eginda, lasai geratuko zineten.

J.G.: Estreinatuta denetik ez dut berriro ikusi antzezlan; laster ikusiko dut. Hala ere, nahiko lasai nago; hiru urtean egindako lanaren ostean, jakin badakit ez dela lardaskeria bat.

Elkarlanari berriro ekin ostean, hurrengo antzerkia elkarregaz egiteko prest zaudete?

A.L.: Nigatik bai; berarekin batera, oso gustura landuko nuke beste gai bat. Hala ere, oraindik, *Etxekoak* antzezlanarekin gaude. Ez diot eperik jartzen.

J.G.: Nire aldetik, orain dela bost urte ezetz esan nuen, eta gero ez da horrela izan. Beraz, ez dut berriro ezetz esango. ◀



Iruretagoienak astelehenean egingo du berbaldia. © IÑIGO IRURETAGOiena

Getxo, mendiari begira

Getxoko Itxas Argia mendi-taldeak Fadurara ekarriko ditu kirol-jarduera bereziak egin dituzten lau lagun, astelehenetik aurrera euren esperientziak azal ditzaten.

Getxoko Itxas Argia mendi-taldeak Mendiaren Nazioarteko XVII. Astea antolatuko du. Erabat doakoa izango da, ohi legez. Astelehenetik eguenera egunero berbaldi bat eskainiko dute Fadurako Areto Nagusian. Saio denak 19:30ean hasiko dira.

Astea Iñigo Iruretagoiena *Iru*-k irekiko du astelehenean. Iruretagoiena

Itxas Argiako kidea da, eta Himalaian, GPS barik, neguan eta bakarrik egin zuen 70 eguneko zeharkaldia kontatuko du. Martitzenean, Mallorcako Isa Garciak Aotearoan edo Zeelanda Berrian barrena 45 egun egin zituen espedizioaren berri emango du. Eguaztenean, Kepa Escribanok «Groenlandia 60°N» goiburuko berbaldia eskainiko du, euskaraz. Beste bi lagunegaz, hi-

labeteen, belaontzi txiki baten laguntzagaz, bailara ezezagunak esploratu, sei ibilbide berri ireki, eta ordura arte igo gabeko lau gailur zapaldu zituen Groenlandiako hegoaldean. Azkenik, eguenean, Christian Ravier kirolari ezagunak «Fascinado por el contraste entre el Norte y el Sur» gaia izango du berbabide.

Ezohiko ahotsak

Mari Espe Fuertes Itxas Argia mendi-taldeko kideak urteak daramatza astea antolatzen: «ez dakit hau hirugarrena edo laugarrena den», dio. Ekimena-

ren helburua «mendizaleek egiten dituzten gauza berezi batzuk erakustea» da. Azken urteotan presentzia handirik ez zuten ahotsei lekua egin diete, gainera.

Fuertesek akordura ekarri duenez, bera antolaketa-lanetan hasi zenean, taldean «erabaki genuen behintzat hizlarietako batek emakumea izan behar zuela, eta berbaldietako bat ere beti euskaraz izango zela. Era berean, erabaki genuen oinarri-kirolariren bat ere ekartzea. Herrikoa ez bada ere, ingurukoa. Irizpide horiek markatu gennituen, eta betetzen saiatzen gara». ◀

San Silvestrea egiteko entrenamenduak hasi dira

Datorren abenduaren 31n, eguena, egingo dute Sopelan Larrabasterrako bigarren San Silvestre herri-lasterketa. Adin denetako kirolzaleek parte hartu ahal izango dute, 17:00etatik aurrera, 400 metro eta 4 kilometro bitarteko zirkuituak osatzeko, adinaren arabera. Hiru bi triatloi-taldeak antolatu du proba, eta iragarri du lortuko den diru dena Javi Conderen elkartasun-maratoiaren proiektuari emango diotela, Bizkaian fibrosi kistikoaren gaitzari aurre egiteko. Izan ere, euro bi ordainduz izen-ematea egin daiteke webgunean, abenduaren 27ra arte edo 600 korrikalari



inskribatu arte. Entrenamendu gidatuak abiatu dituzte, daborduko. Martitzenero eta eguenero dira hitzorduak, 19:00etan, igerilekuetan. Bertako telefonora dei daiteke, izena-emateko. ◀

info+: Triatlonsopelana.org/san-silvestre
/ 944 065 505

Sopelak Euskadiko sokatira-txapelketa hartuko du zapatuan

Zapatuan Euskadiko Goma Gaine-ko Sokatira Txapelketa helduko da Sopelara. Larrabasterrako Urko kiroldegian jokatu da gizonen 320 kiloko bigarren kanporaketa, 17:00etatik aurrera. Bertan, erabakiko da zein taldek lehiatuko duten finala hilaren 21ean, Ezpeletan; sei izango dira finala. Laukote hauek hartuko dute parte kanporaketan: Urdulizko Iparralde, Amaiur, Atzera, Ibarra (3 talde), Ñapurak (talde bi), Murueta (talde bi) eta Sokarri (talde bi). Urduliztarrek dira euren sailkapen-taldeko azkenak, puntu bakarregaz. Lider dira Amaiur eta Ñapurak B, seina puntugaz. ◀

Berangoko Milia Estatu espainarreko onena izendatu dute

Estatu espainarreko Miliarik onena Berangokoa da gaur egun. Berriki, horrela erabaki du Espainiako Atletismo Federazioak. 2015ean, lehenengo aldiz aukeratu dute aurreneko postuan Berangoko Milia, Aranda de Duero (Burgos) puntuazioan gaintu ostean. Berangoko Atletismo Taldeak 28 edizio antolatu ditu, Jose Hernandez zuzendariagaz. Lanari esker lortu da gertaera gogoangarri hori. Pasa den urriaren 3an egin zen orain arteko azken edizioa, Gobelaldeko zirkuituan. Solange Pereira portugaldarrak eta Carlos Alonsok irabazi zuten azken Milia. ◀



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86





Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA. Tf: 94 430 64 93



Faduratik Espainiako selekziara

Getxo Rugby Taldeko hainbat jokalaririk izango dira Espainiako selekzioan, datozten egonaldietan: Nerea Agirre Moragues, Saioa Jaurena Atxa eta Brad Linklater jokalaria eta Carmen Perez kide ohia. Perezek Getxon eman zituen aurreko denboraldi biak, eta aurten, berriz, Frantziako Chambery-Lyonen jokatzen dabil.

Munduko Emakumezkoen Errugbi Txapelketa 2017an jokatuko da Irlandan, eta gizonezkoena, Zeelanda Berria eta Australian. Espainiako konbinatuak ahaleginduko dira bietarako klasifikatzeko. Prestaketa-partidak urtea amaitu aurretik jokatuko dituzte: emakumeak hilaren 16an entrenatzen

hasiko dira, eta Eskoziaren aurka jokatuko dute 22an, Valladoliden. Linklater 21ean lehiatuko da Txileren aurka, Torrelavegan.

Nerea Agirre eskarmentu handiko jokalaria da. Klubean 8 urte zituela hasi zen, eta 16 urte egin ondoren, taldeko kapitaina da gaur egun. Hala ere, lehenengo aldiz jokatuko du Espainiako taldean. Saioa Jaurena, ordea, Baionako Aviron eta College Rifles taldeetan jokatuko ostean, Getxora bueltatu da. Carmen Perez BathCo-n jokatzen zuen, Getxora Ohorezko Ligan parte hartzera etorri baino lehen.

Brad Linklater zeelandaberritarra Getxoko kapitaina ere bada. Aurten, 15. denboraldia egiten dabil Getxon. ◀



Saioa Jaurena La Unican hasi, eta Getxo, Bizkariak eta Aviron taldeetan jokatuko du. © NAFARROAKO E. F.

Jon Zabala errugbilaria, Europako txapelduna

Jon Zabala Arrieta jokalaririk getxotarrak irabazi berri du Europako Errugbi Txapelketa, 19 urte azpiko kategorian. Zabalak Espainiako selekzioagaz lortu du titulua, pasa den urriaren 31n Errumaniaren aurka jokatutako partidaren ondoren, Lisboan. *Lehoiak* 24-3 nagusitu ziren Portugalgo hiriburuan.

Aurretik, Estatu espainiarreko konbinatuak Alemania gainditu behar izan zuen final-laurdenetan, 11-0. Azken aurreko dema Errusiako Federazioaren aurka izan zen, baina beste bi norgehiagoketan legez, erraz garaitu ziren, 30-7 markagailuan.



Jon Zabala getxotarra Espainiako kapitaina izan zen harroin postuagaz, eta txapelketa bikaina egin du. Getxo-ko jokalaririk ohia Baionako Aviron taldeko kidea da orain. ◀

Boluen arbitroa jotzeagatik, urte biko zigorra

Pasa den urriaren 31n, Ortuella futbol-taldeko jokalaririk batek eraso egin zion arbitroari. Meatzaldeko 18 urteko jokalaria Arrautzaldean talde getxotarraren aurka jokatzen zebilen, harik eta epaileak 90. minutuan kanporatu arte: baloia jokoan egon barik aurkari bati ostikada eman izana egotzi zion jokalaria. Txartel gorria ikusi, epaileari ukabildak eman eta hortz bat apurtu zion. Gainera, futbolariaren anaiak marrazaina bultzatu zuen. Lehiaketa Batzordeak urte biko zigorra ezarri dio jokalaria. Bere anaiak, ordea, ez du zigorririk jaso. ◀

Ugeraga eta Athleticen beterano-partida

Domekan, Athleticen beteranoen taldeak bisitatuko du Urko futbol-zelaia. Ugeragaren aurkako partidak hiru helburu beteko ditu: kirol-ikus-kizuna eskaintzea; talde sopoloztarraren 35. urteurrena elikatzea; eta Cefe Amarika Iraguen elkarteko sortzaileari ondo merezitako omenaldia egitea. Partida goizeko 11:30ean hasiko da. Ugeraga Kirol Elkartea 1980-81 denboraldian sortu zen, lehenengo lehendakaria Cefe Amarika izan zela. Denboraldi hartan, bigarren erregionalean jokatzen zuen futbol talde bakarra zeukan klubak. ◀

Dacia Sandero
desde
6.300€¹

LÍDER DEL MERCADO A PARTICULARES*

5 AÑOS¹ DE GARANTÍA

Sé AUTOMOVILISTA. Cómprate un Dacia.

El PVP en Península y Baleares para la adquisición por un particular de un vehículo de motor de un Dacia Sandero Base 1.2 510kW (70CV) con impuestos, descuentos y condiciones del Plan PIVE-II. Modelo ensayado: Dacia Sandero Base 1.2 510kW (70CV) 7.700€ con impuestos, descuentos y condiciones del Plan PIVE-II. Aplicar a particulares y autónomos. Financiando a través de Dacia Bto con RCI Banque S.A. Sursur en España. Permanencia mínima de 24 meses. Importe mínimo a financiar: 4.000€. Incluye 3 años de garantía para toda la gama Dacia, los dos primeros años sin límite de kilometraje, el 3er año la garantía comienza si se superan los 100.000 km. A partir del 3er año, la extensión de la garantía con el contrato Dacia Service es opcional y depende de las condiciones de las condiciones de los contratos de extensión de garantía. Derivados de venta por RECSA, oferta válida del 1/11/2015 al 30/11/15. Incompatible con otras acciones financieras.

Gama Dacia Sandero: consumo mixto (l/100km) desde 3,5 hasta 5,8. Emisiones CO₂ (g/km) desde 90 hasta 130.

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00 DEUSTU www.bilboberry.com
LEIOA BERRI Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90 LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberry

Dacia recomienda **elf**

Neska-mutilak, kirolari ekinda

Getxoko Multikirolak programa abiatu zuten pasa den zapatuan. Aurtengo zenbakiak baieztatzeke daude, baina iaz 1.100 ikasle inguruk hartu zuten parte kirol-ekimenean.

Pasa den zapatuan, hilaren 7an, hasiera eman zioten Multikirolak deritzoten eskolako kirol-programaren denboraldi berriari. Multikirolak ekimena Getxo Kirolak antolatzen du, udalerriko klubakaz eta ikastetxeakaz batera. Denboraldia hasteko, areto-futboleko partida bat jokatu zuten Gobelako kiroldegian.

Getxo Kirolak erakundeak oraindino ez ditu argitara eman aurtengo neska-mutilen kopuruak, baina iaz 1.100 ikasle inguruk parte hartu zuten. Denboraldi berrian, lehen hezkuntzako neska-mutilek 20 kirol-modalitate inguru ezagutu ahal izango dituzte. Besteak beste, honakoak dira eskaini-

tako kirol batzuk: surfa, kayaka, arku-tiroa, bela, arraunketa, irristaketa eta dantza modernoa.

Asteburuetan, errazago

Berrikuntzarik ere badago. Udalerritik kanpo ikasten dutenek ere parte hartu ahal izango dute eskola-kiroletako jardueretan. Aurretik, Getxoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza ikasten zebiltzanek baino ez zuten aukera hori.

Era berean, aurtengo ez da beharrezkoa izango Multikirolak programa osoan izena ematea, asteburuetako topaketetan eta txangoetan parte hartu nahi bada. Horretarako, eta ikusita parte-hartzea ziurrenik handiagoa izango dela, klubek deialdi bakoitze-



Arrauna da aukeran dagoen kirol-modalitateetako bat. © GETXOKO UDALA

rako gehienezko plaza-kopurua jarriko dute, jarduerak modu egokian gara daitezen.

Izen-ematea

Programa horrek ahalbidetu gura die udalerriko eskola-adineko neska-mutil denei kirola egiteko aukera. Horretaz gainera, kirol-ohiturak sendotu eta ikasleen familiak kirol-klubakaz harremanetan jar daitezela lagundu nahi du. Multikirolak programan parte har-

tu nahi dutenek ikastetxe bakoitzean Ikasleen Guraso Elkartearen bidez eman dezakete izena, edo ikastetxe bakoitzean, kirol-jarduerak koordinatzen dituzten pertsonakaz harremanetan jarri.

Herritik kanpo ikasten duten neska-mutilek, berriz, Getxo Kirolak erakundeagaz jarri beharko dute harremanetan, erakundeko arduradunari posta elektronikoki bat bidaliz. ◀

info+: ilacruz@getxo.eus

Ur irekiak Galea taldea, Europako txapelketan sendo

Agurtzane Domingo eta Eduardo Porset Ur Irekiak Galea klubeko igerilari getxoztarrek podiumera igo ziren Europako Txapelketan. Kontinente zaharreko lehiaketa Benidormen jokatu zen, pasa den urriaren 25ean. Bertan, *Oceanman* ibilbidearen 50 urtetik gorako Master kategorian lehiatu ziren Domingo eta Porset. Domingok irabazi zuen emakumezkoen modalitatea, eta gizonezkoetan, Porset hirugarren sailkatu zen. Txapelketa 10.000 metroko distantzian egiteko bazen ere, 7,5 kilometro baino ez zituzten egin, itsasoaren egoera zakarrak behartuta. ◀

Sortu berri da GiraGetxo irristaketa-kluba

Patin-zaleek aukera berria dute irristatzeko. Izan ere, urriaren akabuan GiraGetxo elkarteak jaio zen, irristaketa artistikoko klub berria. Dirua irabazteko asmo bako elkarteak Zubiletan eta Itzurbaltzeta/Romon dihardu. ◀

info+: 669 269 833 / giragetxo@gmail.com



Gimnasia parkeetan egiteko eta oinez ibiltzeko taldeak

Bigarren denboraldia hasi du Getxoko parke publikoetan gimnasia egiteko eta oinez ibiltzeko taldeen programak. Ekimena Getxo Kirolak erakundeak antolatu du, Itxartu elkarteagaz eta Getxo Igeriketa Waterpolo Taldeagaz elkarlanean. 60 lagun inguru dabil doako ekimenean parte hartzen, baina edonor gehitu daiteke. Orain, EHUKo talde batek ikertzen dabil ariketa fisikoak zer eragin dituen osasunean. «Ibiltzea ona da, arinago sentitzen zara, eta ez zatozenez, gorputzak igarri egiten du. Gainera, begiraleek zaintzen zaituzte», dio Asunek, 84 urteko kirolariak. ◀

Leioa, Waterpolo lidergotik kanpo, katalanen eraginez

Pasa den zapatuan Leioa Waterpolo loko emakumeek jaso zuten denboraldiko lehenengo porrota, lau jardunalditan garaiez inibili ostean. Izan ere, leioaztarrek 6-8 erori ziren Askartzan, Kataluniako Sant Feliu Igeriketa Klubaren aurka. Partida berdinduta zegoen (3-4), eta katalanek lau tanto sartu zituzten atsedendaldi luzearen ostean, 90 segundoko *blitzkrieg*-erakustaldia eginez. Orduetik aurrera leioaztarrek egin zuten ahalegina ez zen nahikoa izan markagailua iraultzeko. Orain, Leioa bigarrena da sailkapenean, partida bat gutxiago jokatu duen Concepcionezag berdinduta. ◀

I

Iñaki Bítxitegia

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

Jarrai gaitzazu:



[hirukaEus](https://www.facebook.com/hirukaEus)



[@hirukaEus](https://twitter.com/hirukaEus)

www.hiruka.eus

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Etxekoak
antzezlanaz
gozatze 5 sarrera bikoitz
dauzkagu

SARIA

Azaroak 20, barikua, 20:30;
Kultur Leioa

Artedramaren eta Kultur Leioaren ekimenez,
Etxekoak antzerki-lanaren emanaldirako sarrerak
zozkatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren
17a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure
izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



TIGRE
ITZURBALTZETA
Lagunen partez

Joyeux anniversaire! Irakasle,
bertsolari, gai-jartzaile, antolatzaile...
gure dozun moduan eguna ospatu.
Baina lagunekin akordatu!



ALICIA
ALGORTA
Lagunak eta Txirri

Zorionak, neskato polita!!! Ardotxo
batzuen truke masailak musuz beteko
dizkizugu! Egun eta urte zoragarri bat
opa dizugu!



MAITE
PLENTZIA
Lagunen partez

Zorionak, Maitetxu! Arantza, Jabino,
Juanjo, Angie, Monika eta Imanolen
partez. Horrela jarraitu ezazu, beti
bezain guapa eta jatorra! Gora kopak!



SANTI
PORTUGALETE
Biloben partez

Zorionak, osaba Santi! Ederki ospatu
ezazu zure eguna! Besarkada bero
bat, Larrabasterako familiaren partez.
Maite zaitugu!



IMANOL
LARRABASTERRA
Zure semeen partez

Zorionak, aitatxo!!! Jadantik 42 urte,
zein karroza egiten ari zaren...jejeje,
asteburuan ederki ospatuko dugu.
Maite zaitugu! Liher eta Aretx.



ANGIE
PLENTZIA
Urdulizko kuadrillaren partez

Zorionak, Angie! Jadantik, zure eguna
iritsi da!! Elkarrekin ospatuko dugu
asteburuan! Atera pote batzuk, eta
topa egin dezagun! Mila kilo zorion!!

Sudokua

Gogoan hartu 1etik9ra
arteko zenbaki denek
agertu behar dutela
zutabe, ilara eta azpilauki
bakoitzean.

							8	
		6	4	8				
4					7		2	5
		9	3					
	1					3		8
2			1	7				
			8					
7	2							1
9		5		1				3

Soluzioa

8	9	2	7	1	7	5	8	6
1	6	8	8	9	5	7	2	7
7	7	5	6	2	8	1	8	9
6	5	9	8	7	1	8	7	2
8	7	8	9	6	2	7	1	5
2	1	7	5	7	8	6	9	8
5	2	1	7	8	9	8	6	7
7	8	6	2	8	7	9	5	1
9	8	7	1	5	6	2	7	8

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Gure uda txikia amaierara heldu da, eta negua bator! Begiratu zure armairuan, prest dauden garaiz jakiteko.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Aholkatu zizuten lan hori benetan ona da. Emaiozu aukera, eta ez dizu kale egingo. Gogoratu zure lagunari eskerrak eman behar dizkizula.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Kasualitatez, zure inguruan hamaika pasadizo gertatuko dira. Zure jokabidearen arabera, baliteke ezagutzen duzun mundua aldatzea.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Ezustean, konponketa-lan txiki batzuk egin behar dituzu. Pasadizo bat edo beste sortuko zaizu. Ez ipini aurpegi txarrik.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Kafe bat hartzeko deituko dizu, baina biok jakin badakizue hori baino askoz gehiago dagoela jokoan. Saia zaitetz sentimenduak eta arrazoiak orekatzen.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Tematia da, eta ez dizu kasurik egingo, behin zein hamaika aldiz azalduta ere. Ez galdu denbora konbentzitzeko ahaleginak egiten.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Zuk uste zenuen baino lagun gehiago duzula erakutsiko dizu egunerokoak. Jokoa ibiliz gero, galarak izango dituzu.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gauza bat da zure burua zaintzea, eta beste bat, kirol larregi egitea. Arnasa hartzeko denbora ere beharrezkoa da bizitzaren honetan.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Ez da zure asterik onena izango. Diabetikoaren herria gozoki-denda zabaldu berri duen autonomia legez sentituko zara.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Begiko niniak argituko dizkizun hori topatuko duzu. Hala ere, den modukoa da. Aldatu gura izanez gero, zuena tratatuko litzateke.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Senide horregaz ez zara askotan oso ados ibili, baina gaixo dago, eta zure eta besteen beharra dauka. Laguntzekotan, ez zara damutuko.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zure garaia heltzeaz dago! Izan pazientzia denbora apur batez, eta gauzek onera egingo dute. Egitasmoen ordua ere helduko da.



Opa dizueguna ospatuz

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA



Getxoko komunitate euskaldunak badauka zer ospatu. Euskaraz jardun eta gozatzeko udalerriko eta eskualdeko bost proiektuk urtebetetze-festa oparoa egingo dute azaroaren 28an, elkarlanean. Gonbidatuta zaude!

Getxoko eta Uribe Kostako hainbat egitasmo atzera begira ipini dira, balantzea egin, indarrak berritu eta etorkizuneko erronkei ekiteko. Beren-beregi, Algortako Bertsolari Eskola (ALBE), Bizarra Lepoan euskara elkarte, Egizu!, Azebarri eta HIRUKA elkarri begira jarri, eta pare-parean elkarren alboan egindako ibilaldia azaleratu da. Bat eginda ospatzeko asko dutela konturatu dira, tartean urteurrenak: 35 urte, ALBEk; 20 urte, Bizarra Lepoanek; 15 urte, Egizuk; 2 urte, Azebarrik; urtebetea HIRUKAk. Bidean, hamaika proiektuk, ehunka ekintzak eta milaka lagunek euren ekarpena eta arrastoa utzi dute.

Hitzordua, azaroaren 28an, Algortan

Bost euskara- eta kultur-eragile horiek indarrak batuko dituzte datorren azaroaren 28an, zapatua, Algortan, egindako bidea «ospatzeko, eskertzeko, eta guztion begiradez etorkizun euskaldunari heltzeko» asmoz. Izan ere, elkarrekin «sinergiak baliatuz, eta merezi duen legez ospatu gura» dute orain arte egindako ekarpena. Euren berbetan, «ginenak, garenak eta izango direnak batuz, guztion parte-hartzeagaz, ilusioagaz, bultzadagaz, gogoagaz, ekarpenagaz, eta denon irribarreaz eta besarkadakaz!». Elkarrekin eta herritarren ospakizuna izatea nahi dutenez, «kalean gauzatu gura dugu ekimena». Horregatik,

Algortako Zabala kalean paratuko dituzte elkarrekin informazio-mahaiak eta argazki-erakusketa. Paraje, Zabala eskolan, euskalgintzari kritika egiteko berba-kafe antolatuko dute, urteotan guztian egin-dakoetatik ospatzeko dituztenak kontuan hartzeko, eta aurrerantzean hobetzeko daudenak ezagutu eta zuzentze bidean ipintzeko. Leku berean izango dira

Bost eragileek indarrak batuko dituzte azaroaren 28an, egindako bidea «ospatzeko, eskertzeko, eta etorkizun euskaldunari heltzeko»

argazki-tailerra, bertso-poteoaren abiapuntua, herribazkaria eta elektrotxarangaren ibilbidearen hasiera ere bai. Neska-mutilentzako ipuin-kontalaria, ordea, Villamonte kultur-etxean izango da; eta Algortako hamaika txokotan egingo dute sendientzako ginkana.

Euskararen «latentzia»

Kike Amonarriz izan zen pasa den astean Algortan, Uribe Kostako Azebarri kultur elkarte, Bizarra Lepoan euskara-taldeak antolatutako Berrikasi eta berrikusi goiburuko berbaldian. Bertan akordu-

ra ekarri zuenez, «poz handia eman zidan Getxora etortzeak, 1995aren inguruan. Getxoko Azterketa Soziolinguistikoa egiteko aukera izan nuen, Siadecoren bidez, eta Joxik [Arakama Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikaria] gogoratu didanez, orduan euskararen presentzia baino, euskararen latentzia hitz egin zitekeen Getxon: sumatzen zen bazegoela azpian zeozer, baina oraindik azaleratu gabe». Latentzia hura, jakina, ez zen berez sortu, aurretik ahalegin handiak izan baitziren udalerrian, ehunka lagunek eginak: gau-eskoletan, euskaltegietan, etxeetan, ikastoletan, ikastetxeetan eta abarretan.

Hitza erabiliz, arterako zein normalizaziorako

Aurretik sortu zen Algortako Bertsolari Eskola (ALBE), 1980an. Garai haietarako sendi berezia izan zuen eskolak: bi aita (Trino Azkoitia eta Andoni Iriondo), eta ama bakarra (bertsolaritza.) Zabala eskolan sortu eta urte bira, San Nikolas ikastolara aldatu zuen egoitza. ALBEren haurtzaroa «guztiz zoriontsua izan zen: beti lagunek inguratuta, beti kantuan, beti alai, beti euskaraz, beti bertsotan, eta beti umore onean. Nerabearoan, ohikoa den legez, gorabeherak» izan zituen. Eskola heldutasunera iritsita, Aldai patronatuan hartu zuen ostatu. Gaur egun, Martikoenan ere badaude. Halere, eskola «parrandazale samarra» denez, ondo moldatzen da etxetik kanpo ere: Isidro, Naiara, Butron, Ajuria... Azaroaren 28koaz gainera, beste urtebetetze-festa bat egingo du, ALBE Galan, abenduaren 12an, Igeretxan.

Bizarra Lepoan Getxoko euskara-elkartea, berriz, 1995 hartan sortu zen. Getxorako bakarrik zen Bizarra Lepoan «aldizkariak sortutako beharretatik, horiek ikusita» eratu zen euskara elkarte. Helburuak ziren,



egizu!



besteak beste, «euskararen erabilera sustatzea normalizazioari begira, eta euskal kultura indartzea». Akorduan dutenez, «garai hartan, Getxo nahiko erdalduna zen eta baserri inguruetara mugatzen zen euskararen erabilera. Euskararen taupadak sumatzen ziren, baina ez zen euskararik entzuten herrian». Horregatik, «euskara Getxo osora zabaltzeko» ahaleginetan ibili dira ordutik, «herriko beste eragileakaz». Aldizkariak bide propioa hartu ostean, «geroz eta jende gehiago hasi zen elkartera hurbiltzen boluntario, gure herrian euskarari behar zuen bultzada emateko». Izan ere, Bizarra Lepoan-ek «herriko euskaldun eta euskaltzaleak batera», ume eta gazteen aisialdian, kirolean, kulturean, herriko berbakeran... hamaika proiektu landu ditu: Bapiruke udaleku eta txangoak, bizkaierako ber-

«Ginenak, garenak eta izango direnak batuz; den-denon parte-hartzeagaz, ilusioagaz, bultzadagaz, gogoagaz...»

balagunak, toponimia ibilbideak, kiroleko zein kulturako Gehitu hitzarmenak, eta abar.

2000. urtean, «lau eragileren adostasunaren fruitua» izan zen Egizu! Getxo Euskaldun elkarteak. Getxoko hiru euskaltegiek (Jose Antonio Agirre, Lauaxeta AEK, eta Getxoko udal euskaltegia) eta Bizarra Lepoan euskara-elkarteak sortu zuten, «euskararen erabilera bultzatu eta euskal komunitatea indartu nahian». 15 urtean, «euskaldunon arteko harreman-sareak sortzen laguntzea eta daudenak sendotzea» izan du zeregin nagusia elkarteak. Euskaldun zahar

eta berriei aukera eman diete euskara erabiltzeko kulturean, kirolean zein aisialdian. Oraindik euskaraz ez dakitenakaz ere egon dira, «elkar ezagutzeko eta haiek animatzeko euskara ikas dezaten». Berbalaguna izan zen hasieran proiektu bakarra, baina gaur egun: Kirola euskaraz, kultura eta literatura jarduerak (UKITX), Sendi, Beharsarea...

Kimurik gazteenak

Azebarri kultur elkarteak «2013ko azaroaren 29an eratu genuen hainbat euskaltzalek, euskaraz bizi ahal izateko nahiak bultzatuta», azaldu dute bazkideek. Elkarrekin oinarri bi ditu: «euskarazko kultura eta aisia suspertzea, eta elkarte gastronomikoa izatea; biak elkarren osagarri». Halere, arnas-gune izateko bokazioa dauka, «Uribe Kostan egon dadin esparru bat euskararen inguruan solas eta jolas egiteko, eta gure hizkuntzan elkarrekin bizi eta gozatzeko. Erreferentziala izango den gunea sortu dugu, sortzen ari gara, espazio fisikoa eta eskaintza kulturala bateratuko dituen. Eragiteko gune bilakatu nahi dugu Euskal Herria kaleko gure lokal zabaldu berria».

Proiekturik berriena da, itxuraz, HIRUKA komunikazio-taldea. Diru-irabazi asmo bako kooperatibak argitaratzen ditu irakurtzen zabilzan astekaria eta HIRUKA.EUS agerkari digitala. Halere, Uribe Kostako hainbat komunikazio-proiekturen oinarria da: *Bizarra Lepoan* izandakoa eskualdera hedatu eta *UK* izena hartu zuen aldizkariarena, *Ukberri.net* agerkari digitalarena, eta Koska irratia zein Justuri irati-egitasmoarena.

Gaur egun Getxoko Udalak utzitako Martikoena-ko eraikineko bigarren solairuan du egoitza; ALBE, Egizu! eta Bizarra Lepoanen alboan. ◀

Egitaraua

11:00 Ipuin-kontalaria
Villamonte kultur etxean.

11:00 Argazkigintza tailerra
Zabala eskolako liburutegi txikian.

11:00-14:30 Elkarrekin aurkezpen-mahaiak
Zabala kalean.

11:30 Berba-kafeak: Euskaragintzari kritika: Zer dugu ospatzeko? Zer dugu hobetzeko?
Zabala eskolako aterpean.

12:00 Familia eta kuadrillentzako ginkana
(Zabala eskolan, San Nikolas plazan, Telletxen, Bihotz Alai plazan, Teilagorri plazan eta Portu Zaharreko Etxetxun).

13:00 Bertso-poteoa
Zabala eskolan hasita.

15:00 Bazkaria
Zabala eskolan. Txartelak salgai daude Algortan (Salem, Baserri, Baster tabernetan eta Martikoena 16ko bulegoetan); Itzurbaltzeta/Romon (La Mona tabernan) eta Areetan (Monedero harategian). Nagusien menua (11 euro): marmitakoa, oilasko errea etxeko patatakaz, euskal pastela, ogia, ura edo ardoa, kafea eta kopa. Umeen menua (8 euro): makarroiak, oilasko-paparra arrautza-irinean, txokolate-pastela, Barazkijaleek eta alergikoek menu berezia izango dute, aurretik esanez gero: info@bizarralepoan.org / 944 910 387

16:30 Bingo-jokoa musikagaz
Ekitaldiaren ostean, Zabala eskolan

18:00 Elektrotxaranga
Zabala eskolan hasita.





Mundukatuak

Nicolas Sanchez Izaola bogotarra

«Han geratzera erakartzen zaitu Kolonbiak»

A ita kolonbiarra eta ama getxotarra ditu Nicolas Sanchez Izaolak. Bogotan jaio zen, orain dela 29 urte; 2002an, Arte Ederak Euskal Herrian ikasteko aukera jaso, eta gurera etortzea erabaki zuen, «logikoa denez, deigarriagoa da Artea Europan ikastea Amerikan baino». Kontuak hala, amagaz eta anaiagaz batera, Getxora etorri zen. Ordutik gurean bizi da, eta Bilboko jatetxe batean dabil lanean, sukaldari.

Zer bisitatu

Harro agertzen da bere herriaz: «Bogotan museo oso onak daude, hala nola Urrearen Museoa, Museo Nazionala eta Simon Bolivarren Fundazioa». Era berean, Bogotatik hurbil dauden «mila leku» gomendatzen ditu bisitatzeko. Zipaquirako gatz-meategia gogoan du Sanchezek, «meatzariak katedral bat egin zuten meategiaren barruan; itze-

la da!». Caño Cristales bisitatzeko ere derrigorrezkoa dela dio; azaltzen duenez, «gaixo» dagoen ibaia da, eta horren ondorioz, kolore ezberdinetako bakteriak hazten dira bertan, milioika koloredun ibaia bihurtuz. Guatavita-

“ Bogota kontraste handiko hiria da, favelak zein luxuzko eraikinak ikus daitezke ”

ko urmaela ere bisitatzeko interesgarria dela dio, «indigenek bertan egiten zituzten erritualak, espainolek Kolonbia konkistatu aurretik». Barichara eta Cartagena de Indias herriak ezagutzeari «ezinbestekoa» deritzo, Sanchezen arabera: «oso herri zaharrak dira, baina ederrak, bisitatu beharrekoak». Orokorrean, «denetarik» egin daite-

ke Kolonbian, eta bertara joan zen lagun baten esamoldea gogora ekarrita, esaten du zure herrira bueltatu nahi ez izatea dela Kolonbiako arrisku baxarra, «orokorrean, oso gustura bisita daitekeen herrialdea da Kolonbia».

Jan eta edan

Hango gastronomia egundokoa dela dio, denetarik jan daitekeela. Azaltzen duenez, eskualdearen arabera dira janariak; kostaldean arrain ugari jaten da, arrozagaz eta kokoagaz, dena oso freskoa. Bogota aldean, berriz, zopak eta haragia jatea ohikoa da, «ekialdeko haragia munduko onenetarikoa da, behi-ganadu onenak ditugu bertan». Hegoaldean, Amazonas aldean, «ezberdin» jan daiteke: kuia, armiarma, sugea... Era berean, «pattarra oinarritzakoa» dela gogoratu du. Zukuak ere ugariak dira bertan; «fruta itzelak ditugu, benetan». ◀

NOR DA

Nongoa

Bogota, hiruburu-barrutia. (Kolonbia)

Adina

29 urte

Zertan dabil

Jatetxe bateko sukaldari.

Ikasketak

Artelaren zaharberritzailea.

Noiztik Euskal Herrian

2002an etorri zen amagaz eta anaiagaz, unibertsitateko ikasketak burutu ahal izateko. Hasiera batean, Itzumbaltzeta/Romon bizi zen, baina azkenean, Algorta hartu zuten bizileku.

NONGOA DA



Lurraldea

Kolonbia

Azalera

1.141.748 km²

Ingurunea

Cundinamarca departamenduaren hiriburua bada ere, alderdi administratiboan hiriburu barruti bereizi eta deszentralizatua da.

Biztanleria

6.776.009

Hizkuntzak

Gaztelania da hizkuntza erabiliena. Espainiarren hizkuntzak 500 urte baino gehiagoan bertakoak ordezkatu ditu. Hala ere, oraindik indigenen 65 jatorrizko hizkuntza existitzen dira, eta 1991ko konstituzioak, lehenengo aldiz, bakoitza bere eremuan koofizialtzat onartu zituen, barbarako: arawak, chibcha eta kitxua.

Dirua

Kolonbiako pesoa.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua